

# KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2023ko martxoa / 336. zenbakia

[www.oñati.eus](http://www.oñati.eus)  



## Ernaik 10 urte

Ezker abertzaleko gazte erakundeak eskualde mailako ekitaldia egingo du Oñatin martxoaren 18an

# DEBAGOIENENKO ERNAIK OÑATIN OSPATUKO DU 10 URTEKO IBILBIDEA

Ezker Abertzaleko gazte antolakundeak ehundaka gazteren topaleku bihurtuko du Oñati **martxoaren 18an**



Pilotaleku atzealdean ipiniko duten karpan izango dira kontzertuak eta ekitaldi politikoa.

ERNAIk, Ezker Abertzaleko gazte antolakundeak, 10 urte beteko ditu aurten, eta hori ospatzeko ekitaldi bereziak egingo ditu herriz herri edo eskualdez eskualde, bidean egindako lanaren inguruko hausnarketa egin eta, batez ere, etorkizunari begiratzeko asmoz. Debagoieneko Ernaik Oñatin egingo du eskualde mailako egun politikoa martxoaren 18an. Egun beteko egitaraua prestatu dute, ondoko orrian ikus daitekeen moduan (hitzaldiak, bazkaria, kontzertuak...), eta eskualdeko nahiz eskualdetik kanpoko ehundaka gazte elkartzea espero dute.

## 10 URTEKO IBILBIDEA

2013ko martxoan sortu zen Ernai, *Gazte ZukGua* sorrera prozesuari amaiera emanez. Lizarrako frontoian egin zuen lehen kongresua, eta bertan finkatu zituzten antolakunde berriaren oinarriak. Gerora, 2017ko apirilaren 1ean egin zuten bigarren kongresua Erandion, estrategia berrituz.

## ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21  
Kale Barria, 11  
Lizaur A., 7  
OÑATI  
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO  
GUZTIETAKO  
ALTZARIAK

LANPARAK,  
TAPIZAK,  
KORTINAK

NI  
moda

## MODA BEREZIA

Kale Barria, 12  
Tel. Faxes: 943 71 62 40

## EGITARAUA MARTXOAK 18

### HITZALDIAK

- 'Interseksionalitatetik Euskal Herri feminista eraikitzen'

KULTUR ETXeko ZINE ARETOAN, 11:00

Hizlariak: Ibis Ugarte, Ainhoa Olaso, Naia Kortabarria eta Iñigo Etxezarreta

- 'Gazte botereaz dena aldatzen'

KULTUR ETXeko ZINE ARETOAN, 12:30

Hizlariak: Amaïur Egurrola eta Iker Eizagirre

### GAZTE BAZKARIA

PLAZAKO AZOKA GUNEAN, 15:00

Bazkaloste akustikoa

Bazkarirako txartelak 8€ (ikasle eta langabetuak 5€) herriko tabernetan salgai

### KONTZERTUAK ETA EKITALDI POLITIKOA

PLAZAKO JOLAS GUNEAN EGONGO DEN KARPAN, 19:00

EH SUKARRA, GOLPE DE ESTADO, LIHER, SKABIDEAN, LEHEN LERROA, TRIKIDANTZ eta DJ MALANDRO. Tartean, ekitaldi politikoa egongo da. Sarrerak (20€/15€) herriko tabernetan salgai.



Oinarrian, Ezker Abertzaleko gazte antolakunde iraultzailea da Ernai, eta Euskal Herri gazte, aske, sozialista, feminista, ekologista eta euskalduna lortzea du helburu, ikuspegi nazionaletik beti ere.

Euskal langileriaren eta, bereziki, gazteriak pairatzen duen prekarizazio prozesuari aurre egiteko lanean dihardu Ernai; baita hezkuntza sistema publiko eta euskaldunaren alde, eta beste hainbat borroka sozialetan ere bai.

Eskualdera etorrira, bizitza duinen aldeko borroka esplizituan ari da Ernai; horren lekuko iragan abenduan San Prudentzioko biribilgunean egindako mobilizazioa, garaio publiko duinaren alde.

Azken batean, gazteriarentzako bizitzeko beste modu bat aldarrikatzen du Ernai; munduari begirada kritikoz begiratzen diona eta harremantzeko espazio osasuntsuak sortzen dituen.

### GAZTE TOPAGUNE ERRALDOIA

Oñatiko ekitaldiaren ondoren, Elorrioren izango du hurrengo hitzordu nagusia Ernai, bertan egingo baita gazte independentisten Topagune Erraldoia, **apirilaren 6tik 9ra**. Formakuntzarako, ikasteko eta desikasteko, hausnartzeko eta eztabaidatzeko guneak egongo dira bertan, eta musika eskaintza ere oparoa izango da (*Merina Gris, Zetak, Brigade Loco, Olaia Inziarte...*). Dagoeneko eskuragai daude hiru egunetarako bonuak BIBE plataforman eta ohiko tokietan. ■

**EGUR-LAN**  
AROSZTEGIA  
LIMABAR S.A.L.  
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)  
TEL/FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com  
www.egur-lan.es

**smk**  
san miguel kooperatiba  
943 781 217  
kale barria 8 - 20560 oñati  
www.sanmiguel.coop

**Zergatik animatu zinen Oporrak Bakean programan parte hartzea?**

Programaren inguruko kartel bat ikusi, gehiegi pentsatu gabe idatzi eta hartzaile bezala aurkeztu nintzen. Gero, pentsatzen jarrita, aurreikusten nituen udako oporrak irudikatu eta ea 8 urteko haur batek gurekin gozatzeko aukera izango lukeen pentsatu nuen. Baietz imajinatu nuen, eta hala izan zen. *Amal* oso pozik bueltatu zen bere familiarengana hemengo esperientzia bizita.

Kanpamentuetan bizi den haur saharar bati bada ere, opor polit batzuk bizitzeko aukera emateak badauka elkartasunetik niretzat. Gero eta gehiagok izan aukera, orduan eta hobeto.

**Errefuxiatuen kanpalekuetan, baldintza gogorretan hazitako haurrak dira, beste kultura batekoak, beste hizkuntza batekin... Nolako izaten da hartu-eman? Erraz moldatzen al dira hemengo errealitatera?**

Haurrak dira, txikiak dira eta inoiz ikusi ez dituzten gauza eta egoera asko ikusten dute bapatean. Bestalde, hasieran, hizkuntza ere ez daukate beraien emozio edo beharrak azaldu ahal izateko. Beraz, lehenengo egunetan triste edo goibelago egotea normala izaten da, noski. Gero, beste haur batzuekin jolas-tean, hondartza eta ura ikustean edo hainbat egoeratan adierazten duten poza ikaragarria da eta poliki poliki oso alai ibili ohi dira. Bai, behintzat, gure etxean egon zen *Amal*. Eta konturatu orduko, euskaraz hitz egiten ere ikasten dute.

Hala ere, han, kanpamentuetan, oso barneratuta daukaten zerbait da programa honen bitartez uda pasatzera irtetearena. Inguruan beti daukate familiako kideren bat edo ezagunen bat, eta mentalizatuta datoz.

**Ze adineko haurrak izaten dira? Behar bereziak al dituzte?**

8 urtetik 12 urtera bitarteko haurrak dira. Etxeetara datozen haur



lazko udan xx urteko Amal hartu zuen etxean Laida Bengoak, Oporrak Bakean programaren baitan

# Oporrak Bakean

Harrera familiak behar dira, errefuxiatu kanpalekuetan jaio eta hazitako haur sahararrak udan Euskal Herrira ekartzeko

**Martxoaren 2an irekiko da izen-ematea** [www.oporrakbakean.eus](http://www.oporrakbakean.eus)

46 urte bete dira Marokok Mendebaldeko Sahara okupatu zuenetik, eta orduz geroztik saharar herriaren zati bat basamortuan bizi da, Tinduf-eko (Algeria) kanpalekuetan, bizi-baldintza oso gogorretan (janari eta ur eskasia, 55 gradutik gorako tenperaturak...). Gainera, azken urteotan larriagotu egin da hango egoera, pandemiaren eta Marokok su-etena hautsi izanaren ondorioz. Horregatik, inoiz baino beharrezkoagoa da haur sahararrei (8-12 urteko neska-mutikoei) uda Euskal Herrian igartzeko aukera ematea. Horixe da **Oporrak Bakean** programaren helburua, baina horretarako harrera familiak behar ditu, bi hilabetez haur saharar bat etxean hartzeko prest dauden pertsonak. Edonor izan daiteke harrera familia; mahaian beste plater bat gehiago jarri, uda ezberdin bat igaro, eta saharar herriari laguntzeko gogoia edukitzea besterik ez da behar. Hemengo egonaldia oso onuragarria izaten da haur sahararrentzat (osasuna, esperientzia berriak...), eta baita familia euskaldunentzat ere (uda ahaztezin bat igarotzen dute, umearen familia ezagutzeko aukera izaten dute, seme-alabekin elkartasuna eta enpatia bezalako baloreak lantzen dituzte...). lazko udan 8 urteko *Amal* haurra etxean jaso zuen Laida Bengoak kontatu digu bere esperientzia..

guztiak osasuntsuak dira eta beraz, ez dute inolako behar berezirik.

### Haur sahararrentzat onuragarria izaten da egonaldia. Harrera familiarentzat ere bai?

Bai, onurak baditu. Osasun eta elikadura aldetik hemen dituzten aukerak aipatzen dira askotan eta entzunagoak dira. Baina horretaz aparte, desertuan bizi dira eta kanpamentuetan, udan, 50 gradu inguruko tenperaturak dituzte ia egunero. Hori horrela, eguna barruan sartuta pasatzen dute gauza gehiegirik egin gabe. Uste dut egoera politiko baten ondorioz hor dauden haurrei, hori bizitzeko baino, beste uda bat eskaintzeko aukera badugu, eta hain modu errez eta atseginean gainera, ez dela ezer kostatzen.

Niretzat oso esperientzia ederra izan da, beraien errealitatea hobeto ezagutzea gustatu zait, eta Oñatin bizi diren hainbat bizilagun saharar ezagutu eta beraiekin harremantzeak ere aberastu egin nau. Bestalde bai etxeko, baina baita inguruko lagunen umeentzat edota herriko beste haurrentzat ere oso oso aberasgarria da.

### Nor izan daiteke harrera-familia? Zein baldintza bete behar ditu?

Udaran (uztaila eta abuztua) bere etxean plater bat gehiago jartzeko prest dagoen edozein izan daiteke. Bakarrik bizi diren pertsonak ere izan daitezke, eta seme-alabak edukitzea ere ez da beharrezkoa. Gogo eta ilusio pixka batekin errez egiten den zerbait da.

### Ze betebeharrak dituzte haurrekiko?

Azterketa pediatriko bat egin behar zaie eta dentistako beste bat. Biak Osakidetzarekin egindako akordio baten barruan sartzen dira. Beraien TIS txartelarekin etortzen dira hemengo egondirako. Gainerakoan, zure seme-alaba balitz bezala tratatzea da aholkurik onena.



Anik Zubizarreta, udaleko Partaidetza eta Garapen Komunitarioa batzordeko burua, Laida Bengoa eta saharatar komunitateko kide bat, bere garaian Oporrak Bakean programari esker Oñatira etorritakoa, eta egun bertan bizi dena.

## UDALAK BABESTUTAKO PROGRAMA

Oñatiko Udalak, Partaidetza eta Garapen Komunitarioa batzordearen bidez, 'Oporrak Bakean' programa babesten du, eta JAIMA (Fronte Polisarioak Euskadin duen ordezkariak) elkartearekin elkarlanean haur sahararrak Euskal Herrira ekartzeko dakartzen gastuei (bidaia gastuak, aseguruak, gestioak...) aurre egiten laguntzen du. Oporrak Bakean programaren bitartez bere garaian gure herrira etorri ziren sahararretako batzuk Oñatin bizi dira egun, eta hauek animatu egin nahi dituzte herritarrek errefuxiatuen kanpalekuetan bizi diran haurrak Oñatira ekartzera uda partean.

» **Niretzat oso esperientzia ederra izan da; beraien errealitatea ezagutzeak eta Oñatin bizi diren saharatarrekin harremantzeak aberastu egin nau**

» **Hona etortzen diren haur guztiak osasuntsuak dira eta ez dute behar berezirik, baina hemengo klimaz, naturaz eta janariak gozatzeko aukera izatea handia da beraientzat**

**Ze gasturi egin behar dio aurre harrera-familiak? Noren babesa du, bai ekonomikoi eta bai sor litezkeen arazoaren aurrean?**

Lehen esan bezala, metaforikoki edo, plater bat gehiago jartzea da, hau da gastu normalean, haur bat gehiago izatea suposatzen du. Printzipioz, besterik ez. Hegaldia, bidaia... programak berak eta udalak babestu eta kudeatzen ditu.

**Oporretan Euskal Herritik kanpora eraman al daiteke haur sahararra?**

Euskal Herritik bai. Baina egia da normalean udaran oporretan kanpora joan ohi garela, eta ezin dutela espainiar estatutik irten. Hori bada, agian, batzuentzat eragozpena...

**Nori gomendatuko zenioke oporretan haur sahararren bat ekartzeko, eta zergatik?**

Asko eta asko animatu nahi nituzke, elkartasun keinu txiki horri esker ikaragarri gozatu dutelako beraiek ere.

Etortzen diren haur sahararren kopurua oso jaitzita dago, eta datozenetako asko aterpetxeetara doaz gaur egun. Lehen aipatu bezala, kanpamentuetako baldintzak udaran are gogorragoak dira, eta hemengo klimaz, naturaz, janariak... gozatzeko aukera ematea, gauza handia da beraientzat.

Hala ere oso garrantzitsua da jakitea arazorik egonez gero, egoerak gainezka egin edo edozein gauza gertatua ere, aterpetxe horiek hor daudela, eta elkarte edo arduradunekin kontaktuan jarrita, beti izango duzuela laguntza eta aukera arazoari irtenbidea emateko.

**Noiz eta non egin behar da izen-ematea?**

Martxoaren 2tik apirilaren 28ra izango da izen-ematea egiteko garaia. Bilera informatibo bat ere egongo da, kezkek, zalantzak, beldurrak... argitzeko (<https://oporrbakean.eus>). Informazio gehiago edo zalantzak argitu nahi duenak 675 702 747 (Laida) ere deitu edo idatz dezake. ■

» **ARANTXA KORTABARRIA ARKAUZ**  
ELKAR ZAINDUZ taldearen sortzailea

## "Dolu prozesua bizi egin behar da. Gogorra eta minkorra da, baina galeraren ondoren geratzen den sufrimendua arintzeko era bakarra dela uste dut"

**Elkar Zainduz** taldea sortu dute, maite duten pertsonaren galerak eragindako dolu-prozesua bizi duten gizon-emakumeei laguntzeko



**Elkar Zainduz laguntza taldea jarri duzue martxan Oñatin. Nondik nora?**

Egia esan, aspalditik pentsatutako ideia bat zen. Nik nire bikotearen galera izan ondoren horrelako zerbait bota nuen faltan herrian. Ez nuen ulertzen nola heriotza, guztiok partekatzen dugun etorkizuna izanik eta horrenbeste min eta sufrimendu eraginda, herrian dolu-laguntza talderik ez izatea.

Ezertan hasi aurretik, nire bi delagun izan den *Bidegin* elkarteko Izaskun Andonegirekin hitzaldi bat antolatu nuen herrian, doluaren inguruan herritarrok genuen jakinmina ezagutzeko. Santa Ana antzokia bete zela ikusita eta hainbat eta hainbat herritarren eskaera bete nahian, aurrera egitea erabaki nuen. Herrian egoera berdinean zeuden pertsona batzuen babesaz eta nire alabaren laguntzarekin lehen saioa antolatu genuen.

**Zer da, zehazki, Elkar Zainduz? Nori zuzenduta dago?**

Elkar Zainduz laguntza taldea da, autolaguntza taldea. Galera bat bizi izan duten pertsonak beren mina adierazteko ez ezik,

horren bidez ikasteko ere gune bat izan daiteke. Kezka partekatuak eta helburu komunak dituzten pertsonak osatutako taldea da, eta konfidentzialtasuna eta pribatasuna lehentasunezko printzipioak izango dira bertako kideen informazio pertsonala babesteko.

**Zein dira taldearen helburuak?**

Epe motzera jarri ditugun helburuak hauek dira:

- 1.- Maite duten pertsonaren galerak eragindako dolu-prozesua bizi duten gizon-emakume talde bat gune seguru baten elkartzea, laguntzea eta haiei sostengua ematea, eta ahal den neurrian ongizate emozionala hobetzea eta bakardadea saihestea.
- 2.- Dolu-prozesuarekiko gizarte-sentsibilizazioa sustatzea.
- 3.- Dolua eta heriotzaren inguruan jorratu daitezken hainbat hitzaldi edo solasaldi antolatzea. (Zainketa aringarriak etxean, azken borondate dokumentuak, suizidioa, bizitzen ikasi, hiltzen ikasi...).

**Ba al duzue profesionalen laguntzarik? Zeuk gidatzen duzu taldea?**

*"Dolu prozesua bizi duen gizon-emakume talde bat gune seguru batean elkartzea, laguntzea eta haiei sostengua ematea da helburua. Ahal den neurrian ongizate emozionala hobetzea eta bakardadea saihestea"*

*"Taldean ez da inolako profesionalen laguntzarik izango. Galera izan duten pertsonak osatuta egongo da. Ez da terapia saio profesional bat"*

EZ da inolako profesionalen laguntzarik izango. Hau azpimarratzea gustatuko litzaidake. Taldea, galera izan duten pertsonak osatuta egongo da. **Ez da** dolu prozesua ondo bizitzen lagunduko digun **terapia saio profesionala**.

Neu arduratuko naiz taldeak osatzeaz eta udaletxeko ongizate zerbitzuekin egin beharreko kontsulta edo lanak egiteaz. Saioek ez dute inolako gidoirik izango. Partehartzaile bakoitzak izango du bere espazioa eta taldekide guztiok oinarrizko arau batzuk bete beharko ditugu elkarrekin lan egin ahal izateko: errespetuz entzun eta hitz egin, epaitu gabe entzun, konfidentzialtasuna...

**Zein da saioen dinamika? Zer egiten duzue?**

Saio bakarra izan dugu orain arte eta gu geu ere ikasten ari gara. Partehartzaileek aukera izango dute beraien galeraz hitz egiteko, beraien beldurrak, kezkek partekatzeko, eta beraien sufrimendua eta mina adierazteko.

Inor ez dago hitz egitera behartuta. Errespetatua eta baloratua izango da bere isiltasuna.



Elkar Zainduz taldearen aurreneko saioko irudia

## Hilean saio bat

Hilean behin elkartuko da Elkar Zainduz taldea, hileko lehen asteleheneretan, 18:00etan, Pake Lekuko 3. solairuan. Bertan parte hartu edo Elkar Zainduz-ekin harremanetan jarri nahi izanez gero, hauek dira bideak:

- @elkarzainduzonati Instagram eta Facebook kontuak
- Udaleko Ongizate zerbitzuetara deituta: 943 037 700



**Zuk Bidegin elkartera jo zenuen laguntza bila senarraren heriotzaren ostean. Beharrezkoak al dira era honetako taldeak?**

Dolua bizi dugunean, sufrimendua izan arren, gehienok denborarekin, senideen eta lagun laguntzarekin, galdu dugun pertsona hori gabe bizitzea, egoera berriari aurre egitea eta geure burua berreraikitzea lortzen dugu laguntza espezializaturik gabe. Baina beste batzuk beharrezkoa dute laguntza profesionala, dolua era osasuntsuan bizi ahal izateko. Nik neuk bide horretatik jo nuen, eta prozesuan aurrera egin ahala, bikote-galeraren talde terapia batean parte hartu nuen, profesional batek gidatuta beti ere.

***"Dolu prozesua luzea eta gogorra da, eta horrelako talde batean zuk bezala galera bat izan duten pertsonen inguratuta zaude, eta epaitu gabe entzuna, babestua eta erabat ulertua sentitzen zara. Mingarria, baina, aldi berean, aberasgarria da"***

Elkar Zainduz profesionalik gabeko nolabaiteko talde terapia dela esango nuke. Dolu prozesua luzea eta gogorra da, eta horrelako talde batean zu bezala galera bat izan duten pertsonen inguratuta zaude eta epaitu gabe entzuna, babestua eta erabat ulertua sentitzen zara. Mingarria, baina, era berean, aberasgarria dela esango nuke.

**Denborak berak bakarrik ez omen du mina sendatzen.**

**Dolua bizi beharra dago. Hala al da?**

Erabat ados nago horrekin. Askotan entzun dugu "denborak zauriak osatzen ditu". Denbora faktore garrantzitsua da, baina horrek bakarrik ez du mina arintzen. Dolu prozesua bizi egin behar da, eta bakoitzak, bere galera eta bizipenen arabera, geratu zaizkion landu beharreko dolu-lanak (tarefas del duelo) izenekoak landu behar ditu. Lan pertsonal handia, gogorra eta minkorra suposatzen du, baina galeraren ondoren geratzen den sufrimendu hori arintzeko era bakarra dela uste dut. Nire kasuan horrela izan da behintzat.

**Maite duzun pertsona baten galeraren ostean, askotan bizitzak zentzua galtzen du, baina posible da bizitzarekiko ilusioa berreskuratzea?**

Galdera zaila! Bai, doluaren hasieran dena ilun ikusten da, inolako argi izpirik gabe. Prozesuan aurrera egin ahala, bizitzarako ilusioa berreskuratzen dugula esango nuke, baina gure bizitza ez da inoiz lehen bezalakoa izango, beste bat izango da maite eta galdu dugun pertsona hori gure artean izango ez dugulako.

**Zuri entzuna dizut, dolu-bidea oso mingarria dela, baina oso sendagarria, aldi berean.**

Oso, oso mingarria da, baina bizi beharrekoa, bizitzan jarraitu nahi badugu. Mina eta sufrimendua arinduz joaten da prozesuan aurrera egin ahala, baina pena gure artean gelditzen da betirako. Mina izan arren, bizitzaren alde apustu egiten dugu. ■

 **Catalana Occidente**

**Mikel Egaña Urrutia**  
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

✓ Heriotza	✓ Istripuak	✓ Etxebizitza
✓ Autoak	✓ Ontziak	✓ Aurrezkia
✓ Bizitza	✓ Osasuna	✓ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea  
638 16 79 84  
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com



PINTURAS  
**URBIA**  
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



## Emakumion Kontseilua ofizialki eratu da

Oñatiko Emakumion Kontseiluaren udal ordenantzak zehaztutakoa betez, otsailaren 16an egin zen kontseilua formalki eratzeko batzarra. Oraingo hamabi lagunek osatzen dute kontseilua, baina organo irekia da eta interesa duen herriko emakume orok du parte hartzeko aukera. Informazio gehiagorako udaleko berdintasun teknikariarengana jo daiteke (943780411 / [berdintasuna@onati.eus](mailto:berdintasuna@onati.eus)). Oñatiko Emakumion Kontseilua hilean behin batuko da eta Udalaren web atarian ([www.onati.eus/udala/onatiko-emakumeen-kontseilua](http://www.onati.eus/udala/onatiko-emakumeen-kontseilua)) zintzilikatuko dute jorrotutako gaien nondik norakoak. Bertan dago ikusgai kontseiluaren funtzionamendua arautzen duen udal ordenantza bera ere.

## Zaintzen Mahaia martxan jarriko du Udalak

Martxoaren 8aren harira mugimendu feministak egindako deiarekin bat egin eta udal mailako departamentu arteko 'Zaintza Mahai' bat martxan jartzea erabaki du udalbatzak aho batez. Zaintza sistemari buruzko analisia egin eta estrategia publiko-komunitarioak diseinatzeko eta abian jartzeko elkarrizketarako erabakigune bat izango da.

Oñatiko etxeko langileen egoera identifikatu eta aztertu, eta haien lan-eta bizi-baldintzak hobetzeko programa integralak abian jartzea da, besteak beste, Udalaren asmoa.

Horrez gain, zaintza lanen balio sozial eta politikoa aitortzen duten komunikazio kanpainak ere jarriko ditu abian Udalak, erantzunkidetasunari arreta berezia eskainiz eta etxeko langileenak bezalako errealitateak ikusaraziz.

### M8-KO MOBILIZAZIOEI ATXIKIMENDUA

Udalbatzak bat egiten du, aho batez, mugimendu feministak M8-aren harira deitutako mobilizazioekin, eta dei egiten die herritarrei horietan parte hartzera.

## M8 EGITARAUA



### MARTXOAK 5 /

Foruen plazan, goizean zehar  
EMAKUME ARTI-SAUEN AZOKA  
Andraitz-ek antolatuta

### MARTXOAK 7 /

Zine aretoan, 19:00  
IPUIN KONTAKETA

'Ipuinez nazkatuta' ipuin kontaketa saioa gazte eta helduentzat, Elssie Xalbadorren eskutik.

### MARTXOAK 8

ELKARRETARATZEA / Olakuako patotan, 12:00  
Lagun Lekuk eta Oñatiko pentsionistek deituta.  
Ondoren luntxa Lagun Lekun  
EKITALDIA / Foruen plazan, 19:00  
Mugimendu Feministak deituta

### MARTXOAK 9 / Zine aretoan, 20:00

ZINE KLUBA: 'La Maternal' (Zuz.: Pilar Palomero)

### MARTXOAK 10

ANTZERKIA / Santa Ana, 20:30

'Isiltasunaren gatibu', Zarta antzerki taldea

### MARTXOAK 16

HITZALDIA / Kultur etxeko atikoan, 18:00

'Estatu arrazakeriaren geografikak.

Mugak, patriarkatua eta kapitala' (Gaztelera)

Hizlariak: Ainhoa Douhaibi eta Florencia Brizuela.

### MARTXOAK 23 / Euskaldun Barria gela, 18:00

HITZALDIA

'Dolu perinatala ikusgai egiten' (Gaztelera)

Esku Hutsik elkartearen eskutik.

### MARTXOAK 25 / Santa Ana antzokian, 19:00

ANTZERKIA

'Sehaska kanta gorriari'. Alaine Agirrerren 'Bi aldiz

erditu zinen nitaz, ama' nobelan oinarrituta.

Arta kolektiboa (Irazan Gunea).

### MARTXOAK 30

IPUIN KONTAKETA / Haur liburutegian, 18:00

'Elssie & Dekker'.

Haurrentzako (+6 urte) saioa, Elssie Xalbadorren eskutik.

Urte askotan zuekin

© 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • [www.mapfre.es](http://www.mapfre.es)



Jaione San Miguel Ugarte

**MAPFRE**  
OÑATI





# “GIGAK PARTEKATUZ AURREZTEKO TARIFA”



**FIBRA 300Mb**

+ **MUGIKORRA 30GB**

+ **DEI MUGAGABEEKIN**

**39,90€** /HILEAN

2º LINEA MUGIKORRA  
**GB PARTEKATUZ**  
+3 €/HILEAN

KONTRATATU HEMEN:

 **LIZKER**  
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA  
TLF: 943 090 600



BEZa barne. Dooko instalazioa, 3 hilabetez egon behar duena. Gehitu linea gehigarriak hilean 3 €-tik aurrera eta aukeratu zure GB linea nagusiarekin eta gainerako linea mugikor gehigarriekin partekatu nahi duzun. Gehienez ere 3 euroko lerro gehigarri bat eta kontratu bakoitzeko beste hiru lerro gehigarri. Kontsultatu gainerako baldintzak salmenta-puntuari.

**MÁSMÓVIL**

AHORRA, SIN MÁS

**AGINTALDI AMAIERAKO BALORAZIOAK****IZARO ELORZA ARREGI**  
ALKATEA, EH BILDU

***"Pozik nago lau urte hauetan egindakoarekin. Behar moduko erantzuna eman diegu unean uneko erronkei, eta kudeaketarako gaitasuna erakutsi dugu."***

**Legealdia bukatzeaz dagoen honetan, zein balorazio egiten duzu egindako bidearen inguruan?**

Pozik nago urte hauetan guztietan egindakoarekin. Oro har, esango nuke behar moduko erantzuna eman diegula unean uneko erronkei. Kudeaketarako gaitasuna erakutsi dugu. Ez dira urte errazak izan, ez. Covid garaia ezaugarritu zituen legealdiko lehen urteak: testuinguruak eguneroko erabakiak hartu beharra zekarren eta aurreikusi bariko zerbitzuak, inbertsioak eta laguntzak abiarazi genituen. Gainera, inertzian erori gabe, arduraz, azokaren, udal-lekuen, kultura eskaintza zabalaren, tokiko merkataritzaren... aldeko apustu sendoa egin genuen herri bakarrenetakoak izan ginen. Hori guztia, Zubikoa kiroldegiaren proiektua, Natur Eskolaren birgaitzea eta Araozko Ostatuaren egitasmoa martxan ziren bitartean. Eta artean, egitasmo berriak abiarazi genituen. Finean, konpromiso batzuekin sartu ginen udal gobernuan, eta horiek betetzen jardun dugu azken urteotan buru-belarri, Oñatik, dabilen herri izaten jarrai dezan.

**Azken lau urteotan, asko dira abiarazitako egitasmo esanguratsuak. Zeintzuk nabarmenduko zenituzke?**

Hala da. Esan moduan, ez gara unean uneko erronkak heltzera mugatu. Herri programa sendoa genuen esku artean, eta bertan jasotakoak betetzen jardun dugu, beti, norabidea argi izanda. Alegia, partaidetzan sinesten dugu; herritarrekin batera jardutean; eragileekin eta norbanakoeekin finkaturiko elkarlanean; berdinetik berdinerako harremanean; eredu iraunkorrako bateranzko urratsak egin beharrean... Azken finean, EH Bilduk berezko duen ereduaren baitan dira horiek guztiak. Eta horietan sinesten dugu geuk.

Proiektu zehatzen inguruan, ostera, esan barik doa zaila dela urte hauetan guztietan abiarazirikoen artean bakan batzuk aipatzea, baina, galdetu didazunez, esango nuke, iazko legealditik zetozenez aparte -Zubikoa kiroldegia, Natur Eskola eta Arazoko Ostatu, besteren artean-, azken urteotan esangura handiko egitasmo ugari jarri ditugula martxan. Hor daude Onaro Oñatiko tele-



komunikazio operadorea, Emakumeen Etxea, Energia Plana -zortzi esku hartze ditu barnebidurik-, Nagusien Mahaia, herriko jolas guneen diagnostikoa, Partaidetzako Aurrekontuak, Herritarren parte hartzea, lankidetzak publiko-soziala eta irekiera instituzionala arautzeko udal ordenantza -Euskal Herri osoan, lehenengotarikoa da-, Esperientzia Gela, mugikortasun iraunkorrerako zein irisgarritasunerako esku hartzeak...

**'Oñati, dabilen herria' leloak dioenez, Oñati ez dago geldia. Ildo horretatik, zein egitasmo dituzue uneotan eskuartearen?**

Esango nuke, egitasmo bakan batzuek baino, gauzak egiteko moduek egiten dutela Oñati dabilen herri. Bada, Oñati ez da sekula izan geldia egotekoa. Herritar asko ibili dira han edo hemen gauzak antolatzen eta ekimenak abiarazten, bakoitza, bere alorrean. Eta beharrezkoa da horiek ekinbideetan sakontzen jarraitzeko bitartekoak

eskaintzea. Badira, lagundu ez, eta artean trabak jartzen dituzten politika egiteko moduak ere. Baina hori ez da gure eredu, inolaz ere. EH Bilduren udal gobernuak argi du herri honen etorkizuna herritarrekin batera marraztu beharra dagoela, berdinetik berdinerako harremanean, eragile eta norbanakoeekin elkarlanean. Herri honen egunerokoa herritarrekin batera, haiek erdigunean jarrita, kudeatzeko hautu garbia egin genuen, konbikzioz. Eta horretan gabilta sakontzen urtez urte. Oñatik proiektuak ditu, anbizioa, gauzak egin behar diren konbikzioa, egiteko borondatea, aurrera begiratzeko gaitasuna, erronka berriei heltzekoa... Indarra du Oñatik, eta aprobetxatu beharra dago. Udal gobernuan argi dugu horretarako bitartekoak eskaintzea dagokigula.

**Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari dagokionez, zein puntutan dago prozesua? Zeintzuk dira bere oinarriak?** Prozesu luzea da, arduraz

landu beharrekoa. Finean, harekin, zehazten dugu datozen urteetan nola egongo den antolatuz Oñati hirigintza aldetik. Erabakitzen dugu zer eskaini behar lukeen herriak gizartearen joera berriak eta etorkizuneko erronkak aintzat hartuta; eta, era berean, haren bidez, adosten dugu zein eredu gura dugun Oñatirendako. Aurre lanketan, adostu da Oñatik hirigintza eredu iraunkorrako bat behar lukeela, hirigunea indartu behar lukeela kanpoaldeko garapenaren aurretik, natur-guneak eta natur baliabideak babestu behar lituzkeela, herri kohesioa bermatu beharra lukeela -mugikortasun jasangarria, konexio ona, bide irisgarriak...-, urbanizatu gabeko lekuak babestu behar lituzkeela etorkizunean sor litezkeen beharrak asetzeko -tokiko elikadura, ekonomia zirkularra...-. Eta bide horretan doaz proposamenak. Esan moduan, mundu mailako erronka esanguratsuak ditugu aurrera begira, tokikotik ere heldu beharrekoak, eta horretarako bitartekoak jartzea dagokigu. Orain, idazketa taldearen -HAPOa egitearen ardura duten teknikariak dira haren partetxostenaren zain gaude, hartan jasotakoak aztertu, erabakiak hartu eta behin behineko HAPOa idazteko. Bide onean goaz.

**Alkategai izango zara hurrengo hauteskundeetan, alkate gisa errepikatzeko aukera izango duzu, beraz. Azken urteotan ikasitako gauzak asko izango ziren, zeintzuk azpimarratuko zenituzke?**

Hala da. Ikasi eta berretsi, esango nuke. Alegia, alkatetzara edota udal gobernura lehen aldiz sartzean, nork dagokion alorreko kudeaketa esperientzia izan arren, ez da jakiten herri baten egu-

nerokoa kudeatzeko zereginen nola moldatuko den. Zerbait berria da, bakoitzak egoera eta erronka berrietara moldatzeko duen gaitasunaren araberakoa. Urte zailak izan dira, eta, hein handi batean, aurreikusi bariko testuinguru batek ezaugarritu du -Covid garaia eragindakoa, kasurako-. Exijentzia handiko egoerak bizi izan ditugu. Eta, hor, esango nuke, udal gobernuo kide guztiok berretsi dugula egoera bakoitzera moldatzeko eta unean unekoa kudeatzeko

*"Egitasmo bakan batzuek baino, gauzak egiteko moduek egiten dute Oñati dabilen herria. Herri honen egunerokoa herritarrek erdigunean jarrita kudeatzeko hautu garbia egin genuen, konbikzioz, eta horretan sakotzen gabiltza urtez urte"*

*"Urte zailak izan dira, aurreikusi bariko testuinguru batek ezaugarritutakoak — Covid-a kasurako—. Exijentzia handiko egoerak bizi izan ditugu, eta uste dut udal gobernu taldeak berretsi duela egoera bakoitzera moldatzeko eta unean unekoa kudeatzeko gaitasuna"*

gaitasuna. Berretsi dugu badakigula ikasten, eta egoera bakoitzera moldatzen. Ikusi dugu zein den udaletxearen egunerokoa, ikasi dugu herri bat nola kudeatu, erakundearen arteko harremanean nola jardun, elkarlana zelaz sustatu... Beraz, orain, lau urteren ostean, esan daiteke berretsita daudela kudeatzeko eta moldatzeko gaitasunak. Eta, horri, esperientzia gehitu behar genioke.

**Datorren legealdira begira, zein arlotan jarri behar du**

**Oñatik arreta?**

Esan izan dugunez, martxan ditugun bukatu bariko proiektuez aparte, badira datozen urteetara begira heldu beharrekoak. Hor daude, besteren artean, etxebizitzaren, iraunkortasunaren eta gizarte zerbitzuen alorrak. Batetik, etxebizitzaren gaian, hainbat herritarrekin egin da lanketa azken urteotan. Tartean, ikusi da jendeak arazoak dituela alokagai leudekeen etxebizitzak topatzeko. Eta horretarako irtenbideak aztertu behar dira. Egia da

Europar Batasunak eta bestelakoek finkatuak dituzte hainbat erronka, eta horrek eragina izango du Udalen gain. Horretan sakondu behar genuke. Dena den, esan daiteke bide onean goazela. Horren berme, Europar Batasuneko Next Generation funtsetik Natur Eskolaren birgaitzearen nolakotasunagatik jasoa dugun laguntza. Horrek, nolabaiteko aitortza dakarkie Udalak iraunkortasunaren alde egin duen apustuari eta proiektuari. Dena den, egindakoan geratu barik, eredu sakontzen jarraitu behar litzateke.

Eta horiez gain, ostera, kontuan izan behar dugu biztanleria zahartzen doala, eta behar moduko erantzuna eskatzen dutela hortik sor litezkeen beharrek. Bagabiltza helduen zaintzan eta Eguneko Zentro Arina modukoetan sakontzen, baina hortik harago egin beharra dago. Baditugu proiektuak, eta, aukera izatekotan, horiek egikaritzen hasi gura genuke.

**Zer esango zenieke herritarrei?**

Hasteko, eskerrak eman gura nizkieke lau urte hauetan erakutsitako konfiantza eta babesagatik. Ez dira urte errazak izan, baina unean uneko egoerei aurre egitea lortu dugu guztion artean. Ikusi dugu gauza handiak egin ditzakegula elkarrekin.

Bestetik, esango nieke azken urteotan hartua dugun bide honi jarraipena emateko ilusioz, gogoz eta indarrez gaudela. Dabilen herri izateko lan egiten segi gura dugula, berdinetik berdiner, beti bezala, herrikideekin, eta herriaren alde. Finean, nabarmen aldatu da gure herria EH Bildu udal gobernuan sartu zenetik, eta, geuk, norabide berri honetan sakontzen segi gura genuke. ■

emantzipaziorako laguntzak indartu ditugula, baina ikusi da, eskaerari ez ezik, eskaintzari ere erreparatu behar zaiola -bestelako etxebizitza ereduak aztertzea, alokatzeko erraztasunak ematea...-.

Bestetik, datozen urteak oso erabakigarriak izango dira iraunkortasunaren alorrean -hor daude mugikortasuna, energia ereduak, tokiko elikadura...-. Planetaren muga biofisikoak agerian dira, eta eredu aldaketa bat eskatzen du testuinguruak.



## AGINTALDI AMAIERAKO BALORAZIOAK

**AINHOA GALDOS OLAZAR**  
EAJko UDAL BOZERAMAILEA

### **"Oposizio konstruktiboa izan gara, ados egon garenean proposamenak bultzatuz, eta desadostasunean argumentuak mahai gainean jarritz"**

#### **Nola baloratzen duzue amaitzean den agintaldia?**

Legealdi gazi-goza izan da. Gozoa, lan egin dugulako Oñatirentzat eta oñatiarrentzat, nahiz eta hau ikusaraztea ez den askotan erraza izaten. Oposizio konstruktiboa izan gara, ados egon garen proposamenak bultzatuz eta desadostasunean, gure argumentuak mahai gainean jarritz. Oñatik benetan egin behar du aurrera, inor atzean utzi gabe, eta hori izan da gure helburua hasieratik. Gazia, gardentasun falta handia egon delako. Informazio asko azken momentuan jaso dugu eta askotan komunikabideetatik jakin dugu Udalaren jardunaren berri.

#### **Covid-19ak baldintzatutako agintaldia izan da. Zein neurritan?**

Mometu zailak bizitu ditugu guztiok Covid 19ak eragindako pandemia medio, eta une zail horietan ideologia politikoetatik haratago egon gara, adostasunak bilatu ditugu, beti oñatiarren ongizatea bermatuz.

#### **Zein izan dira EAJren ekarpen nagusiak agintaldian?**

Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak (HAPO) marka-

tuko du Oñatiren etorkizuna, eta hor egon gara, lanketa sakona eginez. Urrutzuko zaborteziaren zigilatzea (2. fasea) izan da EAJren aldarrikapen historikoetako bat. Argi dugu horrekin aurrera egin behar duela Udalak. San Martingo hariztiaren egoerari irtenbidea emateko ere eskatu dugu urteetan, eta, azkenean, lortu dugu Udalak San Martingo hariztiaren diagnostikoa egitea. Beste hauek ere aipatuko nituzke: Torreauroko bidegorrirako zubia; Olakuan erreka inguruko segurtasuna bermatzea; auzoetako inbertsioak egiteko partida handitzea.

#### **BERDINTASUNA ETA PARTE HARTZEA**

Berdintasunerako II. Planari hainbat ekarpen egin genizkion; esaterako, emakumeen osasuna sustatu eta behar espezifikoa artatzea (osasun mentala, bakardadea, menopausia, mamaren auto-esplorazioa...), Oñatiko emakume ekintzaileak balioan jartzeko ekintzak, besteak beste.

Parte-hartze batzordean ere partaidetza aktiboa izan dugu, eta babestu ditugu Eltziaoki hasirako proiektuan egindako hobekuntzak, ego-kitzapenak eta inbertsioak.



Baina deigarria egiten zaigu gardentasunari buruzko atala arautu gabe egotea oraindik..

#### **KIROLA ETA KULTURA**

Kirol arloan, argi dugu Aloña Mendikk futbol zelai berria behar duela. EAJk Berezaon egitea proposatu du, beharrezkoak diren ekipamendu guztiakin batera, tartean aire zabaleko igerilekua. Eta gauza bera atletismo pista-ekin.

Kulturaren etorkizuna definitzeko diru-partida bat proposatu genuen 2020ko aurrekontuetan, eta lanean ari gara proiektu horretan. Musika bandaren dirulaguntza igotzea eta azterketa garaitan ikasteko liburutegiko ordutegia zabaltea ere eskatu dugu.

#### **SOZIOEKONOMIA**

Lehen sektoreari dagokionez, bertako nekazaritzaren alde egin behar dugu etengabe, eta baserritarrengandik gertu egon gara, gobernu taldearekin lankidetzan, beraien beharrei ahalik eta egokien erantzuteko helburuarekin.

Merkataritza arloari dagokionez, tokiko komertzioaren aldeko kontzientziario lana egitea eta sektorearen digitalizazioa modu eraginkorrean gauzatzeko laguntzak eta neurriak hartzea eskatzen ari gara. Horrez gain, bono kanpainaren eraginkortasuna ere aztertu dugu, eta datuetan oinarrituz ahuleziak nabarmenak dira.

Turismo planaren inguruan oso kezkatuta gaude, kaleko turismo bulegoak duen bilakaera ikusita. Bisitarien joerak aldatuz doaz eta gure baliabide turistikoak egokitu beharra ikusten dugu.

#### **ONGIZATEA**

Adikzioak (oro har) prebenitzeko plana egitea eskatu genuen 2020ko aurrekontuetan, eta diagnostikoa egin ostean, laster aurkeztuko da ekintza plana.

Bestalde, ongizate mailan egin ditugun beste hiru proposamen ere nabarmenduko nituzke: bat, Eguneko Zentroa asteburuetan zabaltea eta plaza gehiago esleitzea (egun hala egiten da); bi, menpeko-

tasun gutxiko herritarrentzat ere Eguneko Zentroa zabaltea; eta hiru, Oñatiko udalerria 'Euskadi Lagunkoia' programara atxikitzea, adineko pertsonen bizitza eta zahartze aktibo eta autonomia sustatzeko behar diren politika transbertsalak garatzeko arlo guztietan.

**Esan duzun moduan, futbol zelaia eta igerileku irekiak Berezaon eraikitzea proposatu du EAJK. Ginder ingenierritzak egindako azterlanaren arabera, futbol zelaia Berezaon eraikitzeak –igerilekurik gabe- 14,5 milioitik gorako aurrekontua luke. Egingarri ikusten duzue?**

Bi gauza ezberdinez ari gara. Ginder ingenierritzak egindako azterlanak bi futbol zelai jasotzen ditu, eta gure proposamenak aisialdi gune bat ere aurreikusten du. EH Bilduren gobernuak Betik proposatu du futbol zelaiaren kokaleku gisa, eta gure proposamenak ekipamendu gune bat aurreikusten du, beste kirol batzuk ere aintzat hartuko dituen eta aire zabaleko igerilekuak izango dituen. Sarbide erraza du, Herribusua bertaraino irits daiteke, kirol ezberdinak gune berean izateak kontziliazioa erraztuko du...

Erreserba bat egiteko aukera ere badago, errepidearen bi aldeetara esaterako. Eremu horretako hiri-lurzoruaren hazkundera errematatze modua izango litzateke, Santa Lutzia parkearekin lotuz. Aukera asko ditu. Horrez gain, Berazaon zelai bakarra egin daiteke, eta Azkoagaingoa mantendu, bigarren aukera bezala. Betik baino merkeagoa litzateke, azkarrago egingo litzateke eta Oñatiri ez lioke lurzoru industrialik kenduko.

**Musika eskola berria Olaiturrin eraikitzearen aldeko apustua egin du EAJK.**

Etorkizuneko musika eskola Olaiturrin kokatzea proposatzen dugu, Arkitekto Lizaur kale aldera geratzen den tartean. Diagnostikoaren arabera, musika eskolak izango litzatekeen beharrez guztiak gauzatzeko aukera ematen du espazioari dagokionez (1.500m<sup>2</sup>-ko eraikin berria egiteko aukera dago, gutxienez). Gainera, herrigunearan dago, lur-zoru publikoa da, udalaren jabetzakoa, eta eraikina oin berrikoa izanik, diseinua askatasun osoz egingo litzateke.

*"Hiri Antolamendu Plan Orokorra eguneratzeko prozesua oso luze doa, luzeegi. Herriaren garapenerako estrategia integralik gabe jarraitzen dugu"*

*"Gazteek bizitza proiektu duinak eratzeko aukera merezi dute, enplegu eta etxebizitza aukerak sustatu behar dira, besteen artean. Politika publiko on batek etorkizunera begiratu behar du"*

Horrez gain, Lizaur kaleari erremate egokia eskainiko lioke eta aukera bikaina ematen du etorkizunera begira, Agustindarren eraikinaren inguruan kulturagune zoragarria eratzeko, musikaren, dantzaren, arte eszenikoen eta abarren inguruan.

Gainera, azpimarratu nahi dugu Olaiturriko jolas gunearen zati handi bat (2/3) libre geratuko litzatekeela, oraingo erabilera ematen jarraitu ahal izateko.

Eta batez ere, azpimarratu nahi dugu, Olaiturriko aukerak saihestuko duela galtzea San Martingo lur-erreserba etorkizuneko zerbitzu sozio sanitarioak kokatu eta garatu daitezen.

Beraz, udal gobernuari eta alkateari azaroan, idatziz, eskatu genien kontuan har

dezala Olaiturriko aukera, Musika Eskola berria kokatzeko alternatibatzat. Analizatu dezala sakon eta errotik kokagunea eta ezarri diezaiola analisi horri, bai irizpide estrategikoak (epe luzeko ikuspegia), bai hirigintza eta arkitektura-irizpide teknikoak. Egin dezala gaur egun bideragarriak diren bi hautabideen arteko konparaziozko analisia (Olaiturri eta San Martin): alde onak eta txarrak, epea(k), kostua... Eta eman diezaiola analisi horren berri herritarrei. Ez dugu erantzunik jaso.

rez gain, Aurrerakinak zioen industriarako nahiko lurzoru badagoela, eta ez da egia. Eta zer gertatzen da Babes Ofizialeko etxebizitzekin? Gazteentzako etxebizitzekin? Etxebizitzarako aurreikusi dutena sinestezina da. Ez dute lur berririk urbanizatu nahi eta HAPOa estutzen ari dira. Oreka bat bilatu behar da, etorkizunean etxebizitza faltak honen prezio igoera ekar baitezake.

**Emakumeen Etxearen proiektua nola ikusten du EAJK?**

Prozesuak erabakiko du zer izango den, baina azpimarratu nahi dut guretzat oso garrantzitsua dela aniztasuna bermatzea. Ideologia ezin da erabili partehartzea mugatzeko, herritarrok, pentsamendu bat edo beste izan, denok izan behar dugu lekua espazio horretan.

**Nola ikusi duzue gobernu taldearen jarduna. Zein dira EAJKren ustez, egiteko gelditu direnak?**

Geldirik dagoen herria da Oñati. Epe motzerako proiektu gutxi batzuk ditu... hau-teskudeetarako hiru hilabeteren faltan ari dira herriko kaleak altxa eta asfaltatzen. Azken momentuan... Zer egin du Udalak orain arte? Gazteek bizitza proiektu duinak eratzeko aukera merezi dute, enplegu, eta etxebizitza aukerak sustatu behar dira, besteen artean. Honen harira, adibidez, orain dela gutxi (urriak 19), EAJK-PNVko Madrileko senatariak, Almudena Otaolak, egindako eskaera: Guardia Zibilaren egoitza gazteentzako alokairu sozialeko etxebizitzetarako bideratzea. Politika publiko on batek etorkizunera begiratu behar du, herritar guztien ongizatea bermatu, adin, sexu, funtzionalitate, arraza... bereizketarik gabe. Aurrera doan Oñati nahi dugu. ■

## Amaia Erostarbe izango da EAJren alkategaia maiatzeko udal hauteskundeetan

Oñatiko EAJk Amaia Erostarbe Letamendi (Oñati, 1966) aurkeztu du alkategai maiatzeko udal hauteskundeetarako. Filologian lizentziatua, euskal kulturgintzaren transmisioan aditua da Erostarbe, eta hezkuntzan egin du lan-ibilbidea, Gasteizko Iralen aurrena, eta Oñati Institutuan egun. Zortzi urte daramatza zinegotzi lanean Oñatiko udalean, herriaren alde lanean.

Emakume abertzalea, bakezalea, hurbila eta baikorra dela diote EAJko udal taldeko kideek. "Baikorra eta lasaia da Amaia, talde-lanean eskarmentu handikoa eta entzuteko gaitasun handikoa. Ondo ezagutzen du Oñati eta oñatiarrak, baita egunerokotasunean sortu ohi diren kezka, arazo eta gorabeherak ere". Oñatiko Uri Buru Batzarrak adierazi



**Amaia Erostarbek zortzi urte daramatza zinegotzi lanetan Oñatiko udaletxean**

duenez, baikortasunaren, apaltasunaren eta konstantziaren erudia da Amaia, eta bera da Oñatiko herriak behar duen eta eskatzen ari den aldaketa gidatzeko hautagai egokiena.

Erostarbek berak adierazi du gogo biziz, prestutasunez eta konpromisoz heltzen diola erronkari, "Oñatiren eta oñatiarren alde lan egiteko, haien kezkek eta beharrak entzun eta aintzat hartzeko konpromisoarekin, elkarlanean herriaren zein herritarren etorkizuna eraikitzeko. Oñatik aukera ugari dauka aurrera begira bizi den herri bihurtzeko, eta herritarrekin elkarlanean eraiki nahi dut gure herriaren etorkizuna. Herriaren alde urteetan lanean jardun ondoren, ohorea da bide horri jarraipena emateko abagunea edukitzea, Oñati denon parte hartzearekin eraiki ahal izateko".

## Ricardo Guisado-Balanzategi izango da PPren alkategaia

Kordoban sortua, baina Oñatirekin lotura duen (Santxolopeztegiko Balanzategi baserrikoa zen bere amama) Ricardo Guisado Balanzategi izango da PPren alkategaia udal hauteskundeetan. Albaitaritzan eta Zientzia Politikoetan lizentziaduna da eta Oñatiko herriaz maiteminduta dagoela adierazi du. Urtebete darama Oñatiko beharrak ezagutzen, eta proposamen ugari omen ditu. Horietan garrantzitsuena, Oñatin nekazaritza eta abeltzaintza ikasketen fakultate bat sortzea, EHU-ri atxikia. Albaitaritza, agronomia eta bromatologia ikasketak eskainiko lituzke eta ikerketa zentroa eta animalia-klinika bat ere izango lituzke. Popularren zerrendako hurrengo biak Maria Olan Mugika eta Eva Pereira Korkostegi izango dira, azken hau Reyes Korkostegi zenaren biloba.



Olan, Pereira eta Guisado, Oñatiko aurkezpenean



**Gualbi**  
asesores

*Bezeroen beharrei erantzuteko prest!*

**Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea**  
**Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza**  
**Merkataritza • Abokatuak**

Euskadi Etorbidea 6  
T.: 943 781 648  
onati@gualbiasesores.com  
-  
[www.gualbiasesores.com](http://www.gualbiasesores.com)

SUMMER CAMPS 2023

# WANTED



- Adina: 5 eta 11 urteko haurrak.
- Ordutegia: from 9:30 am. to 13:00 pm.
- Iraupena: 2 - 4 weeks
- Datak: June 26th - July 21st.
- Haurrak hartzeko zerbitzua: 8:30am. - 9:30am
- INGELESA ekintza hauen bitartez: Irteerak, MasterChef, eskulan tailerrak (barruan eta kanpoan), jolasak eta kirolak.

Izena ematea  
irekita  
maiztaren  
31ra arte



Zure  
ordutegira  
egokitzen  
gara

## REWARD

Dibertsio handia ingelesez!



<https://summercamps.mondragonlingua.com/oinati>



[mloinati@mondragonlingua.com](mailto:mloinati@mondragonlingua.com)



943 71 60 00



mondragonLingua



# ONAROn zuntz sarea 700dik gora etxetara iristen da dagoeneko

**Olakua**ko San Andres kooperatibako 414 etxebizitzak zuntz bidez konektatzeko lanak amaitu berri ditu Onarok. Aurretik beste 300 etxebizitza lotu zituen **San Martin** auzunean

**60 baserritara banda zabaleko Internet eraman du antena bidez**

ONAROk, Oñatiko telekomunikazio operadoreak, zuntz sare propioa Olakuako San Andres kooperatibako etxe guztietara —414 etxebizitza— hedatzeko lanak amaitu berri ditu. Aurretik, beste horrenbeste egina zuen San Martingo 300 etxebizitzatan. Beraz, duela urte eta erdi sortu zen ONARO konpainiak dagoeneko herriko 700dik gora etxebizitzatara eraman du zuntz sare propioa.

Gogoratu, banda zabaleko Internet konexioa herritar guztien eskura jartzeko helburuarekin sortu zela ONARO. "Interneteko konexioa oinarritzko zerbitzu bat da gaur egun —Nazio Batuen Erakundeak hala aitortua— eta gure helburua da zerbitzu hori herritik bertatik eskaintzea herritarrei, gardentasun osoz, merkaturko espekulaziotik kanpo, eredu eta prezio justuak, eta bermeak eskainiko dituen", adierazi dute Xabier Igartuak, ONAROk lehendakariak, eta Izaro Elorza alkateak.

Landa eremuko auzoetan hasi zen lanean ONARO, telekomunikazio operadore handiek bazterturik dituzten eta, beraz, konexio azkarrik ez duten baserrietara banda zabala eramateko asmoz. Horretarako, antena bana instalatu zuen Belarren eta hilerri inguruan, eta horri esker 30Mb-ko konexioa bermatzen du irrati-uhin bidez, landa auzoetako etxe eta eraikin gehienetara.

Herriguneari dagokionez, beste operadore batzuen sarea erabiliz hasi zen zuntz bidezko zerbitzua ematen —merkaturkoak baino tarifa merkeagoak eskainiz, beti ere—, baina ONAROn helburua da zuntz sare propioa hedatzea, poliki poliki,

## CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

**Etxe eta lokalen gestio orokorrak**

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es

GARBIKETA  
ADMINISTRAZIOA  
ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarten administrazioa
- Konponketa orokorrak



**653 70 45 47**

Oñati



herrigune osoan zehar (Oñargik instalatuta daukan sarea baliatuz), eta, ildo horretan, urrats oso garrantzitsuak eman ditu bere zuntz sarea San Martin eta Olakua auzuneetan hedatuta. "Azken batean, teknologia burujabetzan sakondu nahi dugu, herriarena den zuntz sare bat hedatuz, operadore handien menpe egongo ez dena, horrek ahalbidetuko baitigu herritarrek dagokiona baino gehiago ez ordaintzea oinarritzko zerbitzu baten truke", adierazi du Igartuak.

San Martinen konektatuta dauden 300 etxeetatik 170etan ONAROn zerbitzua jasotzen ari dira dagoeneko. Beste etxe batzuetan lehendik zituzten permanentzia kontratuak iraungi zain daude. Olakuari dagokionez, sarea hedatzeko lanak burutu berritan, bezeroak erakartzeko kanpainan murgilduta dago ONARO. Bere zuntz sarearen bidez, Interneteko konexio azkarra hilean 17€-tik kontratatzeak aukera eskaintzen du ONAROk, permanentzia barik.

### SARE IREKIA

ONAROk sare irekiaren aldeko apustua egiten du; hau da, herrigunean instalatzen ari den zuntz sarea irekia izango da, eta beste edozein operadorek izango du sare hori erabiltzeko aukera. "Askotan ikusi dugu, diru publikoarekin eraiki izan diren sare eta azpiegiturak —Telefonica, Euskaltel...— gero esku pribatuetan geratu direla, eta herritarrek ikaragarritzko prezioak ordaindu behar izaten dituztela. "Guk horri aurre egin nahi diogu. Gainera, ez dugu egokia ikusten sare paraleloak sortzea", adierazi du Igartuak.

## IZAERA KOMUNITARIOA

Azpimarratzeko modukoa da ONAROn zuntz sarea Olakuan eta San Martin auzunean hedatzeko erabili den eredua. Izan ere, batean zein bestean bizilagunen komunitateekin elkarlanean adostu eta burutu baita sarearen zabaltzea. Bizilagunek ordaindu dute azpiegitura zabaltzearen kostuaren zati bat, eta ONARO arduratu da zuntza bertaraino eramateaz, konektagarritasuna bermatzeaz, eta sistema bera mantentzeaz.

Kontuan izan behar da ONARO telekomunikazio operatzaile bat dela eta CNMCK (Comisión Nacional de los Mercados y la Competencia) ezarritako baldintzetan jokatu behar duela, eta, ondorioz, ezin duela dirulaguntza publikorik erabili sarea hedatzeko, besteak beste. "Horregatik, ONAROn sarea instalatzeko proiektu hauek tokian tokiko komunitateekin elkarlanean egiten ari gara", azaldu du Igartuak. "Gure asmoa da, bizilagunek egin duten hasierako inbertsio hori tarifetan aplikatuko diren deskontuen bidez bueltatzen joatea nolabait, eta gainerako irabaziak sarearen zabaltze prozesuan inbertitzen jarraitzea".

### LANDA AUZOETAN

Belar eta kanposantu inguruan dituen antenen bidez 30Mb-ko Interneteko konexioa eskaintzen die ONAROk landa auzoetan bizi diren herritarrei, eta, dagoeneko, 60 baserritan ari dira ONAROn seinalea jasotzen antena bidez.

Badira, hala ere, ONAROn seinalea iristen ez den zenbait gune landa eremuan, eta halako kasuetan irtenbide egokia emateko lanean dihardu ONAROK. Hala, Uribarri auzoan, adibidez, seinalea jasotzen ez duten guzueetan zuntza hedatzen ari dira une honetan, eta Garagalza auzoan, Olatera bidean dauden zenbat baserriri ere soluzioa emateko lanean dihardu. Ildo horretan, Udala egiten ari den ahalgina azpimarratu nahi izan du Igartuak. "Foru Aldunditik aspaldi esaten hasi ziren zuntza landa eremu guztietara epe motzean iritsiko zela, baina urteak aurrera doaz eta ez dugu aurrerapenik ikusten. Orain, Espainiar estatuak hartu du bere gain zeregin hori, baina diru partidak ez du

» *Interneteko konexioa oinarritzko zerbitzua da egun, eta gure helburua da banda zabaleko konexioa eskaintzea herritar guztiei, heritik bertatik, gardentasun osoz, merkatuko espekulaziotik kanpo, eredu eta prezio justuak, eta bermeak eskainiko dituen*


**XABIER IGARTUA**  
ONAROKO lehendakaria

bermatzen %100eko estaldura".

### ETORKIZUNEN ASMOAK

Une honetan 500 bat bezero ditu ONAROk eta 500dik gora telefono mugikor ditu aktibatuta. Balorazioa oso positiboa da, Igartuak adierazi duenez. "Unean uneko beharretara egokitzen eta indartzen ari den zerbitzua da ONARO. Zerbait berria da, eta ez dira asko munduan dauden era honetako ereduak. Gu sine-tsita gaude oinarritzko zerbitzuak tokikotasunetik eskaini behar direla, eredu eta prezio justuan, gardentasunez, eta horretan ari gara, herriarekin batera, burujabetzan sakonduz".


Etorkizunera begira, zuntz sarea hedatzen jarraitzeko asmoa du ONAROk, interesa agertzen duten bizilagunen komunitateekin elkarlanean, eta banda zabali ez duten etxeei lehentasuna emanez. Laster internet bidezko telebista eskaintzeko asmoa ere badu; kate generikoez gain, euskarazko tokiko telebistak ikusteko aukera ere egongo da. ■



**COINBROKER**  
OÑATI  
ASEGURU ARTEKARITZA  
CORREDURIA DE SEGUROS

ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA  
943 089 006 688 774 531 - WHATSAPP  
OINATI@COINBROKER.EUS



# Azpilletako eta Goiko Bentako ur sareak lotzeko lanak egingo ditu Udalak

Azpilletako sareari lotutako 27 baserriei ur edangarria bermatzea da helburua. Lanek 229 mila euroko aurrekontua dute.

Arantzazu auzoko 27 baserrik ur edangarriarekin duten arazoa konpontzeko asmoz, Goiko Bentako eta Azpilletako ur sareak lotzeko lanak egingo ditu Udalak, Gipuzkoako Ur Kontsortzioarekin elkarlanean.


Santutegi ingurukoak ez diren Arantzazuko baserriek Azpilletako ur-deposituan bildutako ura jasotzen dute egun. Ur biltegi hau 1994an eraiki zen, Udalaren eta auzotarren diru-ekarpenarekin finantzatuz, eta orduz geroztik auzotarrak arduratu izan dira bertako ur sarearen kudeaketaz eta ura kontsumitu ahal izateko eduki beharreko kalitatea mantentzeaz.

Baina azken bi urteetan egindako analisietan trihalometanoen mailak kontsumorako uren kalitate irizpideak gainditzen dituela antzeman da, batez ere prezipitazio urriko agorraldietan.

Horren aurrean, Udalak eta auzotarrek aukera ezberdinak aztertu dituzte, arazoari irtenbidea emateko asmoz. Aukere-

» **Azken aldian trihalometanoen mailak kontsumorako uren kalitate irizpideak gainditzen dituela antzeman da Azpilletako ur deposituan**

» **Martxoaren erdi aldera hasiko dira lanak eta 12 aste epea aurreikusten da lanak burutzeko**



tako bat zen Elgea mendi aldean egindako zundaketatik ura ekartzea Azpilletako biltegiara, eta beste aukera, Azpilletako ur sarea Goiko Bentakoarekin lotzea. Goiko Bentako ur biltegia 1999an eraiki zen, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak eta Udalak finantzatuta, Arantzazuko santutegia eta inguruko etxe nahiz ostaluen beharrei erantzuteko.

## IRTENBIDE EGINGARRIENA

Aukera biak auzotarrekin eta adituekin aztertu eta baloratu ostean, irtenbiderik egingarriena eta ekonomikoena bigarrena zela adostu zuten, hau da, Azpilletako eta Goiko Bentako ur sareak lotzea, eta, horrenbestez, erabiltzaile guztiak Ur Kontsortzioak kudeatzen duen udal saretik hornitzea.

Goiko eskemak erakusten duen moduan, sare biak lotzeko hodi berri bat sartuko da Zelazabal jatetxeko ur hartunetik Zapiarbe baserriraino, eta Akuegiko Errota inguruan ere errefortzuko hodiak jarriko dira bi tarte txikitant. Horiez gain, Mendiexeberri baserria hornitzeko (Azpilletako ur biltegia baino altuago dago) ponpaketa sistema egokituko da, eta sarearen mantenua errazteko hartune bakoitzean mozte giltza eta erregistro bana jarriko da, eta presioa gehiegi ez handitzeko balbulak ere jarriko dira gune ezberdinetan.

Lanak Ekin Eraiketak S.L. enpresak egingo ditu 223.749 euroko aurrekontuarekin (BEZ barne). Erdi bana ordainduko dute Udalak eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioak.

**ZURICH**

M<sup>a</sup> del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea  
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

**HARALD LINDER**

ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK  
PERSIANAK, LENIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...

DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA  
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

# GARDENTASUN ATARIA sortu du Oñatiko Udalak

Oñatiko Udalak, gardentasunean aurrera egiteko nahitik, aholkularitza eta asistentzia teknikorako zerbitzua kontratatu zuen 2022an udal mailako bide orria zehaztu eta 2022-2025 urteetan zehar garatzeko lan-plana idatzi zein garatzeko. Prozesu horren baitan zegoen gardentasun ataria. Azken hilabeteotan ataria elikatzen ibili da, eta ikusgai dago jada udal webgunean, 'Gardentasuna' deritzon atalean. Izfe-ren plataforma baliatu du honetarako.

Oñatiko Udalak 2020. urtean egin zuen gardentasun sistema abian jartzeko lehen urratsa: diagnosi bat egin zuen barne mailan erakundearen egoeratan zegoen eta abiapuntua zein zatekeen zehazteko —2021ean amaitu zen prozesua—. Besteak beste, honako hauek ziren prozesuaren helburuak: toki-administrazio gisa dagozkion gardentasun-betebeharren identifikazioa, eta horietan aurrera egiteko eginbeharren



Izaro Elorza, alkatea, eta Anik Zubizarreta, udaleko Partaidetza eta Garapen Komunitarioaren batzordeko burua

**2022-2025 urteetarako landutako gardentasunerako planaren baitan, Gardentasun ataria sortu du bere webgunean Udalak**

zein irtenbide teknologikoen mahai-gaineratzea.

## GARDUNTASUNERAKO LAN-PLANA

Horren ostean, 2022an, 2022-2025 urteetarako gardenta-

sunerako lan-plan bat eskatu zitzaion *Attest* enpresari, aipaturikoak udal webgunean sartzen hasteko eta gardentasun ataria sortzeko bidean laguntzeko. Hain zuzen ere, plan horrek, udaleko garden-

tasunerako-ekintzak zehazten ditu datozen urteetarako. Eta oraindik ere, enpresa berak jarraituko du prozesuan bidelagun. Izan ere, gardentasunerako ataria aurkeztu den arren, oraindik eduki gehiago bildu, prestatu eta argitaratzen joango da Udala, dela gardentasun atarian, dela webguneko beste atal batzuetan. Hala, herritarrak aukera izango du webgunetik bertatik edukiak zuzenean kontsultatzeko. Besteak beste, Udalaren aurrekontuei eta zerga, tasa eta dirulaguntzei buruzko informazioa kontsultatu ahal izango da bertan.

Prozesu honek udal irekiera eta gardentasunerako bidean aurrera egiteko konpromisoan berresten du Oñatiko Udala. Are gehiago, iaz onartu zen "Herritarren Parte-hartzea, Lankidetzaren publiko-soziala eta Irekiera instituzionala arautzeko udal Ordenantzak" hain justu gardentasuna du hizpide, besteren artean, hirugarren atalean. ■

**ANE MERTZERIA**

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

**Cartonajes Arregui, S.A.**

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09  
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

**ETXiAN**  
Inmobiliaria

Ramon Irizar kalea, 3  
Tel: 943 71 61 60

✉ [etxian@etxian.net](mailto:etxian@etxian.net)  
[www.etxian.net](http://www.etxian.net)

carpintería  
**GARIBAI**  
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • [garibai@garibai-aroztegia.com](mailto:garibai@garibai-aroztegia.com)  
[www.garibai-aroztegia.com](http://www.garibai-aroztegia.com)

## Auzobideak konpontzeko hainbat lan egiten ari da Udala, 275 mila euroko aurrekontuarekin

Auzo-alkateen foroan aztertu eta zehazten da urtero auzobideetan egin beharreko lanen plangintza. Iazko ekitaldiari dagokionez, zortzi esku-hartze egitea erabaki zen. Horietako batzuk eginda daude jada. Hala, argazkian ikusten den moduan, Arregiko aldapan eustormaren zati bat berreraiki eta zoruan zeuden pitzadurak bete dira, besteak beste. Barrenetxe baserrirako bidea sendotzeko lanak ere amaituta daude, San Martin eta Murgia arteko errepideko bihurtzea zabaltzeko lanak ere bai, eta baita Errekalde-Torretxebarri arteko bidea konpontzeko lanak eta Pullangoa baserri inguruan bidea zabaltzeko lanak ere. Torretxebarri-Guridi, Askontegi eta Iruatzen ere konponketa ezberdinak egingo dituzte. Excavaciones Arrasate enpresa egiten ari da lanak, 275 mila euroko aurrekontuarekin.



## Torreazuko bidegurutzea eta Kasablanka artean oinezkoentzako bidea egokituko du Udalak

Otadui zuhaiztia eta Torreazuko bidegurutzea artean oinezkoen irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzeko lanak



lizitaziora atera ditu Udalak. Lan hauek Gipuzkoako Foru Aldundiak eraikiko duen Goribarko biribilgunearen osagarri dira. Errotondaz gain, bi autobus geltoki ere egokituko ditu diputazioak, eta Udalak oinezkoentzako bideak egokituko ditu errepidearen alde bietan, autobus geltokiak Otadui zuhaiztiarekin eta Kanpiazelaiko industrialdearekin lotzeko. Udalak bere gain hartuko dituen lanek 72.038 euroko aurrekontua dute. Bestalde, Foru Aldundiak biribilgunea eta autobus geltokiak eraikitzeko adjudikazioa Excavaciones y Transportes ORSAren alde, 554.747 €-tan, eta ustekaberik ez bada, aste gutxiren buruan hasiko dira lanak.

## UDALAREN DIRULAGUNTZA DEIALDIAK

### GIZARTE LARRIALDIAK

Gizarte bazterketa arriskuan dauden herritarrei zuzendutako laguntzak dira, besteak beste, energia eta mantentze gastuetarako, etxearen alokairurako, edo beharrezkoak diren altzari edo etxetresnak erosteko. Martxoaren 31ra arteko eskerek urtarillaren 1eko efektua izango dute; apiriletik aurrerako eskaerak ordutik aurrerakoa.

### ADIKZIOEN TRATAMENDUA

Adikzio mota ezberdinak tratatzeko Oñatitit kanpora joan behar izaten duten herritarren eta hauen senide edo laguntzaileen garraio gastuak arintzeko. Epea, azaroak 30.

### BERDINTASUNA

Emakume eta gizonen arteko berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea lortzea helburu duten programa eta jarduerak sustatzeko dirulaguntzak. Eskaera epea: apirilak 3.

### EMAKUMEENTZAKO LAGUNTZA

Bizikidetzaren unitatea hautsi eta, gainera, errenta eta diru-sarrera urriak izanik, familia-kargak dituzten emakumeei zuzendutako laguntzak. Eskaera epea: azaroak 30.

### EMANTZIPAZIORAKO LAGUNTZAK

Etxebizitzaren alokairu gastuei aurre egiten laguntzeko 18 eta 35 urte arteko gazteei zuzendutako laguntzak dira. Eskaerak egiteko epea: urriak 17.

### IKASTETXE ETA GURASO

### ELKARTEENTZAKO LAGUNTZAK

Herriko ikastetxeek eta bertako guraso elkarteek eskola jardueraz kanpo gauzatuko dituzten ekimenak sustatzera zuzendutako dirulaguntzak dira. Eskaera epea: martxoak 17.



**Ingelesko Akademia**  
Listening Speaking Reading Writing

Maite Aiausti Kortabarria  
Irakaslea

[www.4sgoiena.com](http://www.4sgoiena.com)

Arantzazuko Ama, 3 behea • 20560 OÑATI (Gipuzkoa)  
943 53 36 57 • 4sgoiena@gmail.com

Gezalaga  
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | [gezalagamargoak@hotmail.com](mailto:gezalagamargoak@hotmail.com)

## 'Nekazaritzako jarduera osagarriak' ikastaroa Oñatin

Langabezian dauden pertsonak nekazal sektorean lan egiteko gaitzea da ikastaroaren helburua. Guztira 370 orduko ikastaroa da, eta hauek dira, besteak beste, jorratuko diren gaiak: lurra prestatzea, landatzea eta ereitea; ureztaketa, ongarritze eta tratamenduen aplikazioa; labore eta instalazioen mantentze lanak; praktikak enpresan. Ikastaroa martxoaren 20an hasiko da eta Olaburu zentroan (Zubillaga auzoa) eskainiko da (9:00-14:00). Informazioa eta izen-ematea: 627 431 904 / fpegipuzkoa@hazi.eus



### MAHAI-INGURUA

#### OSAKIDETZA HILZORIAN

Eragile sozial ezberdinen **Astin-tzen** dinamikaren baitan, Osakidetza bizi duen egoerari buruzko mahai-ingurua egongo da martxoaren 15ean, kultur etxean, 18:30. Jesus Oñate (LAB) eta Markel Brouard (familia medikua) izango dira gonbidatuak. Osakidetza nola dagoen egituratuta, gauzatzen ari den pribatizazioa, jasaten ari den gainbehera, profesionalen ihesa, lehen arretaren egoera... izango dituzte hizpide.

## Ekintzaileei zuzendutako prestakuntza tailerrak

Negozio ideiarekin bat garatu edo enpresa bat sortzeko bidean dauden ekintzaileei zuzendutako prestakuntza tailerrak antolatzen ditu Debagoieneko Garapen Agentziak. Sei tailer izango dira: **Martxoak 6: 'Ekitean kontuan hartu beharreko alderdiak'** (bideragarritasun plana, era juridikoak, laguntzak...); **Martxoak 10: 'Negozio txikiak abian jartzea'** (Egin beharreko izapideak -Gizarte Segurantzaren, ogasuna..., ziurtagiri digitalak); **Martxoak 13: 'Langile autonomoen erregimena'** (Kotizazioak, hobariak, prestazioak...); **Martxoak 17: 'Negozio txikien oinarritzko kudeaketa I'** (Prezioak eta kosteak kalkulatzeko, gutxieneko fakturazioa...); **Martxoak 20: 'Negozio txikien oinarritzko kudeaketa II'** (Oinarritzko kontzeptu ekonomiko-finantzarioak...); **Martxoak 24 eta 27: 'Negozio txikien fiskalitatea'** (Zergabidea, ticketBAI, PFEZ-a, BEZ-a...). Saio guztiak Mankomunitatearen Arrasateko egoitzan izango dira (9:30-13:30). Tailerrak dohainik dira, baina izen-ematea beharrezkoa da ([www.debagoiena.eus](http://www.debagoiena.eus)). Plaza mugatuak daude.

## garmendia tejas



### Era guztietako teilatu eta egurrezko egiturak

25 urtetik gorako esperientzia dugu.  
Urtean 150 obra baino gehiago egiten ditugu.  
Euskadin eta inguruetan erreferentzia gara birgaitze lanetan, estalkiak eta egurrezko egiturak egiten.

Basozabal Industrialdea 5 - N-1, km. 417  
20212, Olaberria (Gipuzkoa)

T. 943 161 032  
[www.garmendiatejas.com](http://www.garmendiatejas.com)



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlerran izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

**Bidaurreta Dorrea z/g**  
**20560 OÑATI**  
**Tel.:943 78 20 72**  
**kontzejupetik@onati.eus**



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## KONTZEJUPETIK

### Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

### Zuzendaria:

Iñigo Arregi

### Publizitatea:

Aratz Losada

### Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

### Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

### Inprimategia:

Gertu

### Tirada:

5.500 ale

### Lege gordailua:

SS-357/91

### Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

### Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa  
20560 Oñati (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 20 72

## Kirolaren lobbya: aseezina

**Koldo Zumalde Barrena**

Asko ez dela, kirol hiria proiektua aurkeztu zigun oposizioko alderdiak. Orain, atletismo pistaren eta futbol zelaiaren inguruan egindako azterlanak ezagutarazi dizkigu udal gobernua. Ene galdera: horren atzeraturik al dago gure herria kirol azpiegiturretan? Kolapsoa!?

Gaitz zabaldua da: denok nahi izaten dugu inguratu gurera ahalik eta gehien. Eta saiatzen gara azaltzen premiak, proposatzen ideiak, ateratzen zarata... Irudipena dut, hala ere, beti dugula garaile kirolaren oihartzun mediatikoa. Kosta ahala kosta.

Ez ditut nik zerrendatuko ariketa fisiko normalaren onurak. Baina bai beste zenbait erronka: trantsizio energetikoa, lur industrialak, herri basoak, euskal Wikipedia, ekintzaileak...

## Izan zirelako, dira!

**Marijo Etxegoien Arzuaga, EAJ-PNVren udal taldeko zinegotzia**

Autoan nindoala entzun nuen honako berri hau: "New York-eko Orkestra Filarmoniko ospetsuak emakumeen eta gizonen arteko parekotasuna lortu du 2022an". Beraz, orkestraren historian, lehen aldiz, gizon adina emakume daude (45 emakume, 44 gizakume).

Orkestra sortu zenean, 1842an, musikari guztiak gizonak ziren; areago, gizon zuriak ziren gehiengoak. Bestalde, aipatu behar da, garai hartan, New Yorkeko Orkestra Filarmonikoa, musikari beltz bakarra zegoela. Beranduago, 1969an, bi musikari beltzek Filarmonikoa salatu zuten, eta argudiatu zuten ez zituztela kontratatu arraza zela-eta. Ondorioz, Orkestra Filarmonikoa zera erabaki zuen: musikari berrien kontratazioarako entzunaldiak itsuak izatea; musikariak gortina baten atzean jotzen du, eta entzuten daudenak ezin dute jakin, ez nor den, ez sexua, ez arraza.

Hori guztia New Yorken. Eta Oñatin, zer? 70eko eta 80ko hamarkadetan Oñatiko Musika Bandan sartu ziren lehenengo emakumeak Edurne eta Cristina izan ziren. Ondoren sartu ziren Judith, Ainhoa, Belen, Myriam eta Berta. Haien atzetik, beste hainbat eta

hainbat. Sortuko zen gorabeherarik! Hala ere, atzera begiratuta, esan liteke, herriarekiko, emakumeen parte-hartzea modu naturalean egin zela, elkarrekiko errespetuan oinarrituta.

Esango nuke, gure herrian, beste hainbat eremutan ere aldaketa bakean eta modu naturalean gauzatu direla. Aipagarria da, eredugarria eta esanguratsua izan delako, Oñatz dantza-taldeak egindako bidea; baita Santa Agedako kintoen parte-hartzea. Prozesu guztiak, ordea, ez dira samurrak izan; esaterako, herriko elkarte batean lehen emakumea sartzeko, hiru bozketa errepikatu behar izan ziren.

Aldarrikatu ditzagun, 2023ko martxoaren 8aren harira, bada, ondo egin diren prozesuak, balioan jarri ditzagun aldaketak lortzeko errespetuzko ereduak eta ikusarazi ditzagun aldaketak eragiteko ezinbestekoak izan diren emakumeak: Edurne, Kristina, Judith, Ainhoa, Belen, Myriam, Berta, Itsaso, Maite... eta beste asko. Bejondeizuela! Egin zenutelako, izan zinatelako, dira!

## Olapoto-Aldakiño hiri-basoko lanen inguruan

**Oñatiko Naturzaliak (Amaia Beloki Santesteban eta Jon Ugarte Ugarte)**

Idatzi honekin otsaileko KONTZEJUPETIKen argitaratutako "Olapoto-Aldakiño hiri-basoa berreskuratzeko lanak abian" idatziaren harira, hainbat galdera planteatu nahi diogu dagokionari Oñatiko Naturzaliak taldeak.

Lehenik eta behin, argi esan behar dugu proiektuak aldarrikatzen dituen bi helburuekin guztiz bat gatzela: herritarrentzat hariztiak gozatzeko aukerak areagotzea eta dituen balio naturalak zaintzea, eta ahal den neurrian, indartzea. Horiek azaltzen ditu idatziak. Baina helburuekin bat etortzeak ez du esan nahi horien interpretazioarekin bat gatozenik. Naturaren ezagutza, kontserbazioa eta dibulgazioa helburu ditugun taldea izanik, idatzian azaltzen diren hainbat kontzeptu eta lan ulergaitzak egiten zaizkigu. Ulergaitza besteko minkor egiten zaigu ere proiektuaren jatorria. Agian, ulergarriagoa litzaziguke hirigintzatik



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 11 15 • [www.batuak.com](http://www.batuak.com)

proposatutakoa izan balitz: eremu urbanoa urbanizatu beharra ikustea haien partetik, erabilera handitzea; ez, ordea, ingurumen batzordetik, zeinen helburuak natur ondasunen zaintza eta kontserbazioa izan beharko luketen, eta dagokionean, ondasun horiek eskaintzen dituzten zerbitzu ekologikoak lehenetsi herritarren erabileraren berehalakotasunaren aurrean.

Sarreran honako hau aitortzen da: "eremu honetan ez da mantenu lan handirik egin urte askotan, eta horrek baso azpiko landaredi oparoaren garapena baimendu du. Ondorioz, basoak itxura narrasa du zenbait gunetan, baina, bestalde, bioaniztasun oso aberatsa gordetzen du bere baitan". Kurioso da hausnarketa hori egin duenak basoaren inguruan duen ikuspuntua. Jakin beharko luke justu mantenu lanik egin ez delako eta "segida ekologikoa" deitzen zaion prozesuaren bidez daukagula lur urbanoan berreskuratzen ari den basoa, baso-komplexutasun geroz eta handiagoarekin justu basoa baso izateko beharrezko dituen landare-estratuak dituelako, horietako bat oihanpea edo sastrakadia: ondoren etorriko diren zuhaixka eta zuhaitz handien baldintza-sortzailea; ornogabe, mikroguztun eta hegazti mordoaren babesleku,

janleku eta habia-leku; eremu honetako biodibertsitate altuaren erantzule zuzena. Nola esan daiteke basoaren funtsezko egitura batek itxura narrasa ematen diola berorri? Behar bada, basoa beharrea, "ordenatuak" eta "garbiak" izaten diren hiri-parkeak edota era okerrean baso deitzen zaien etekin ekonomikora bideratzen diren zuhaitz landaketak dituelako buruan?

Esku-hartze nagusiak azaltzeko orduan, berriz, basoan egingo diren lanak zehazteko parke eta lorategien diseinuan aritzen den LUR paisajista enpresak idatzitako proiektua eta herriko zenbait eragilek egindako ekarpenak kontuan hartu direla dio. Alde batetik, herriko zenbait eragileren ekarpenaren aipua deigarria egin zaigu; izan ere, ez gaude ziur guri buruz ari den edo beste ekarpen batzuk egin ote diren, benetan pozgarria izango litzatekeena. Esan beharrea gaude 2021eko irailean proiektuaren berri izan genuenean (2020ko martxoan idatzitakoa), txostena espresuki eskatu behar izan genuela udaletxean xehetasunez ezagutu ahal izateko horren nondik norakoak, eta, hala bazegokion, ekarpenak egiteko. Txostenari 12 ekarpen egin ondoren (10 orrialde luzetan argudiatuta), udaletik ez dugu jaso erantzunik horietatik kontuan

zeintzuk hartu diren edo ez jakitera emateko. Gustura entzungo genituzke azalpenak. Gure aldetik, orain arte egin diren lanak ikusita, ez dugu ikusten gure ekarpenik kontuan hartu denik.

Bestetik, berez, inongo diru-kosturik gabe datorren hariztia parke gisa diseinatu eta kudeatzeko erabakia, zergatik hartu da? Bertako balio natural eta biodibertsitate handia ezagututa, zer premia egon da esleitzeko basoko esku-hartzea parke-diseinua eta kudeaketa proposatuko duen enpresari? Ez al zen nahikoa bazegoen bide-sarea garbitu eta egokitzea eta arriskutsu izan zitezkeen ertzetako zuhaitzak botatzea? Sastrakadia suntsituta zabaldu diren hiru metro zabalerako bideak zertarako egin dira, oso metro gutxira bide-zidor zaharrak daudenean? Zergatik ez da prozesu parte-hartzailea izan auzotar eta erabiltzaileok hain kuttun dugun basoaren esku-hartze proiektua? LUR paisajistak idatzitako proiektuari jarraipenik emango zaio, edo idatzian aipatzen diren lanekin amaituko dira ere esku-hartzeak?

Luze jarrai genezakeen arren gaia aletzen, jakin beza udal-gobernuak, oraingoak eta etorriko denak, prest gaudela eta egongo garela elkarlanerako zein modu eraikitzailean gure jakintza eta proposamenak partekatzeke. ■

OHAR ETA DEIALDIAK

## ATZO, ETZI Oñatiko Kultur Ondare Etnografikoa liburua aurkeztuko dute martxoaren 3an

» Jerardo Elortza bildumako 4. liburua da

*Gure Bazterrak* taldeak lan berria argitaratu du. 2021.urtean, 100 lagun baino gehiagoren partehartzearekin, herriko ondare etnografikoa aztertu zuten **Erreusak** egitasmoan (herriko 80 baserri, etxe, eskulantegi eta elkartek gordetako objektuen inguruko datu-bilketa eta nagusiei egindako 30 elkarrizketa, jardunaldiak, formakuntza saioak...).

1540 piezaren katalogazioa eta 30 elkarrizketa baino gehiagoren ondoren, ikusi eta ikasitakoarekin liburu bat osatu dugu, herritik jasotakoa herrirari itzuli asmoz. **Martxoaren 3an, 18:00etan, Oñatiko Kultur Etxeko zine aretoan** aurkeztuko dute Arantzazu Sagarzazu Sacristán taldekideak idatzi duen **Atzo, etzi. Oñatiko Kultur Ondare Etnografikoa** liburua eta ordutik aurrera herriko salmenta gune ezberdinetan eskuragarri egongo da (Haritza, Altuna, Ibarondo, Turismo bulegoa eta Arantzazuko denda). Aurkezpenean zehar egitasmoko irudiak ikusgai izango dira. *Gure Bazterrak* taldekoez izenean, eskerrik asko hau posible egin duzuen banako, talde eta erakunde guztiei.



## Gurpil-aulki elektrikoa opari

Bidaurretako mojek oparitutako gurpil-aulki elektrikoa jaso dute Pake Lekun, beharra daukan bazkideren baten esku uzteko. Interesa dutenek martxoaren 15a baino lehen eman behar dute izena elkarteko tabernan.



## Irati filma ikusteko aukera gehiago

Asteburu honetan (martxoak 3-6) **IRATI** filma ikusteko aukera egongo da Oñatin, eta piztu duen ikusmina dela eta, emanaldi bat gehiago egongo da, larunbatean 19:30etan. Gogoratu, bestalde, martxoaren 12an (Santa Ana, 19:00) azkenengo MAX sarietan egile berri onenaren saria jaso zuen **La Pandera** antzezlanaren ikusteko aukera egongo dela.

## Herbizidak erabiltzea debekatuta

Udalak dei egiten du ez dadin herbizidarik erabili bide bazterrak garbitzeko, debekatuta dagoelako eta arazoak sortzen dituelako desbroze lanak egiterakoan.



OÑATIKO UDALEKO

ARAZERIXAN

HAUR ETA GAZTERIA SAILA

Gure ekintzen berri emango duen atala...

## OÑATIKO UDALEKU IREKIAK, ATE JOKA

Aurtengo Oñatiko udaleku irekiak ate joka daude, hasi da jadanik martxan lantaldea. Oñatiko Udala eta Txatxilipurdi elkarteak lan ildoak finkatzen eta 2023an egingo diren udalekuei lehen zertzeladak ematen ari dira da-goeneko. Abian dira hainbat aurre lan.

Ekainaren 26an emango zaie hasiera udaleku irekiei, eta uztailaren 21era bitarte egongo dira martxan. Aste horietan Oñatiko kaleak jolas eta irriz beteko dituzte 4-12 urte bitarteko haurrek, herriko parke eta txoko guztiei bizia eta alaitasuna emanaz. Iaz bezala, aurten ere, 10:00-13:00 bitartean egingo dira udalekuak. Horrez gain, kontziliazio arazoak dituzten familiei zuzendutako zaintza zerbitzua egongo da, 8:15-10:00 bitartean.

### IZEN EMATEA

Izen ematea, martxoaren 13an, 9:00etan zabaldu, eta, martxoaren 24an, 19:00etan, itxiko da. Izen emate prozesua online izango da eta [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) udal webgunearen bitartez egin beharko da. Ikastetxeetan banatuko den udalekuen inguruko esku orrian adieraziko dira xehetasunak. Bi aste horietan, herritarren galdera eta zalantzak erantzuteko zerbitzu berezi bat ere eskainiko da Txaloka udal ludotekan, modu presentzian edo telefonoz, 16:45etik 19:30era bitartean.

### > ARTE UDALEKUAK

Azken urteetako joerari jarraiki, arte udalekuak ere eskainiko ditu Oñatiko Udalak. Eskaintzaren beharren eta nolakotasunaren eraginez, plaza muga-tuak izango dira. Arte udalekuen kasuan ere, martxoaren 13tik -9:00etan hasiko da- martxoaren 24ra -19:00etan bukatuko da- bitartean egongo da izen-ematerako aukera, [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) udal webgunean.



### AGENDA

**Kuboko ekintzak:** **Martxoak 8**, ekintza berezia. **Martxoak 12**, magdalena lehiaketa. **Martxoak 18**, Potx magoarekin, magia ikastaroko ikuskizuna. 19:00etan kuboko haurrentzat eta "magoen" gurasoentzat. | **Topalekuko ekintzak:** **Martxoak 12**, M8ko ekintza bereziak. **Martxoak 18**, futbol txapelketa. | **Txalokako ekintzak:** **Martxoak 3**, Maider Alcelay ipuin kontalaria 17:30etatik aurrera. **Martxoak 10**, eskulanak. **Martxoak 17**, zinema. **Martxoak 24 eta 31**, ludotekako ortua margotu. | **Kontzertuak:** **Martxoak 11**, Asgarth eta Basati, 22:00etatik aurrera. Sarrerak: 10€ (+gastuak). **Martxoak 26**, The Lizards, 12:30ean. Sarrerak: 6€ (+gastuak). **Apirilak 1**, Harria + Ramada Inn, 19:00etatik aurrera. Sarrerak: 8€ (+gastuak).



TABERNA • JATETXEA

Bidebarrieta 6  
Tel.: 943 71 62 96  
20560 OÑATI

FAGOR

INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA






## Lana kooperatibak 6.000 euro banatu ditu herriko hiru ikastetxeen artean, hezkuntza proiektuak garatzen laguntzeko



LANA kooperatibaren helburu nagusietako bat ingurune hurbilean positiboki eragitea da, gizarte, kirol, hezkuntza edo kultura arloko proiektuak sustatuz, edo gobernu kanpoko elkarten lana babestuz, besteak beste. Hala, 2022an erabaki zuen bere funtsen zati bat Oñatiko hezkuntza proiektuetara eta eredu kooperatiboa sustatzera bideratzea. Horri esker, Elkar Hezi ikastetxeak (Behebarrua proiektua), Txantxiku ikastolak (Konfiantzaren Pedagogia) eta GURELOHEK, Urgain-Errekaldeko gurasoen elkarteak (jolas guneko espazioen berrantolaketa eta egokitzapena) 2.000 euroko laguntza bana jaso dute, abian jarri dituzten hezkuntza proiektu berrietarako egin beharreko egokitzapen lanei aurre egiten laguntzeko. Argazkian daude LANAko eta ikastetxeetako ordezkariak.



## 'Goribar-Kasablanka, XX. mendeko bizitza argazkitan' liburua plazaratu du Ugartek

Goribar-Kasablanka auzuneari buruzko argazki liburu ederra argitaratu du Jesus Mari Ugartek, auzotarren eta Udalaren laguntzarekin. Bostehundik gora argazki jaso dituzte liburuan, atal ezberdinetan antolatuta. Kapitulu bakoitzaren hasieran sarrerako bat ere idatzi du Ugartek, auzoak izan duen bilakaerari buruzko hainbat azalpen eta bitxikeria azalduz. Auzoan izandako enpresa eta pertsona esanguratsuei buruzko atal interesgarri bana ere badaude liburuan. Txokolateixan eta turismo bulegoan eskura daiteke.

# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARZMEINDIARRIETA, KOOP. E.

## LANERAKO GERTU!

- | Fabrikazio Mekanikoko  
Produkzioaren Programazioa
- | Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- | Sareko Informatika Sistemen  
Administrazioa
- | Automatizazio eta Robotika  
Industrialia
- | Mekatronika Industrialia

Goi Mailako  
Heziketa  
Zikloak



### ATE IREKIAK

**Apirilak 1** 11:00etan

**Maiatzak 6** 11:00etan



Eman  
izenak!

66429653  
66429674



## Uxue Osés eta Iñigo Erle txapeldun

**PILOTA** Olatz Arrizabalagarekin bikotea osatuz, Bizkaia Torneoa irabazi du Uxue Osés Egañak. Otsailaren 12an jokatu zen finalean 22-21 irabazi zuten Amaia Aldai eta Nora Mendizabalen aurka. Bestalde, Lapke taldeko Iñigo Erlek Malerrekako txapelketa irabazi du senior mailan, Oier Ariztegirekin (Oberena) bikote osatuz. Finalean Laka-be-Peñalver (Paz Ziganda) hartu zituzten mendean 22-20.



## Igerilariak bikain Gipuzkoako txapelketan



**IGERIKETA** Aloña Mendiko igerilariak lan ederra egin zuten otsailaren 4-5ean Agorrosinen jokaturako Gipuzkoako neguko igeriketa txapelketan. Maila absolutuan **Ane Madinak** zilarrezko hiru domina lortu zituen 50 Bizkar, 50 Libre eta 100 Estiloetan; eta **Kepa Aldekoak** urrezkoa 50 Bizkarrean. Junior mailan **Oier Aldekoak** brontzezkoa kolporatu zuen 50 Librean. Infantiletan, **Oier Osak** urrezkoa 1500 Librean eta brontzezkoa 800 Librean; Urrezkoa irabazi zuten baita ere, **Mattin Garaik** 100 Bizkarrean, **Enaitz Kortabarriak** 200 Bizkarrean, **Helene Olalde** 100 Bizkarrean, eta nesken 4x50 Librean erreleboan; Helene Olalde gainera, zilarra kolporatu zuen 200 Bizkarrean, eta brontzezkoa lortu zuten **Naroa Letamendik** 100 Bularrean, eta **Mara Mugarzak** 100 eta 200 Bizkarrean. **Uxue Igartuak** urrezko domina lortu zuen maila absolutuko sailkapen orokorrean.



Larraun ibaiaren iturburua

## Mendi irteera Aralarra

**MARTXOAK 19**

Aloña Mendik martxorako antolatu duen mendi irteeran Aralar zeharkatuko dute, Sakanatik Lekunberriraino. Uharte Arakilen abiatu eta Aralarko santutegiraino igoko dute, arbola arteko bide politean gora. Atsedean labur baten ondoren, Artxueta (1.350m) mendi tontorrera igoko dute. Iksuegi ezin hobea dago bertatik: Sakana, Andia, Urbasa hego aldetik eta Aralar iparraldetik. Iruñea ere ikusten da. Beherako bidean, Ata harana igaro eta Larraun ibaiaren iturburura iritsiko dira, eta Iribas herrixkan amaituko da ibilaldia. Denera, 18.5 km (+1.000m.). Ez du zailtasunik, baina luzea da.

Izena emateko azken eguna, martxoak 16, Aloña tabernan edo [alonamendi.mendi@gmail.com](mailto:alonamendi.mendi@gmail.com). Bazkideek 10€. Federatuta egon behar da. Irteera, goizeko 7etan, postetxean.

## Osa nagusi Espainiako kilometro bertikalean

**MENDI LASTERKETAK** Malen Osa (Salomon) korrikalari oñatiarrak Espainiako kilometro bertikaleko txapelketa irabazi du 23 urte azpikoen mailan. Murtziako Ojós herrian jokaturako txapelketan Malen Osak 47:43an osatu zuen 6km-ko (+850m) ibilbidea, eta hirugarrena izan zen sailkapen orokorrean, Nuria Gil (47:08) eta Onditz Iturberen (47:32) atzetik.

Bestalde, **Ainara Uribarri** 2. sailkatu zen TransGran Canaria lasterketako 11,9 km-ko (+725m) proban, eta **Saioa Arkonada** ere 2. sailkatu zen Autol herriko (Errioxa) Ogro mendi lasterketako 18km-ko (+900m) lasterketan.

**JUANJE MARGOAK**  
627 818 247

**ARKITEKTURA**

Baserrien eraberritzeak • Isolatzailea fatxadan • Igogailuak

tel: 677 31 20 57 \* [amaiigartua@gmail.com](mailto:amaiigartua@gmail.com)

**Oñabike**

[oñabike.com](http://oñabike.com)

Otadui 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL EKIPAZIOAK



## Areto Bizikleta Maratoia

APIRILAK 1, LARUNBATA, ZUBIKOAN (10:00-13:00)

Udalak eta Egoitek kirol zerbitzuek antolatuta, Oñatiko X. Areto Bizikleta Maratoia egingo da apirilaren 1ean, Zubikoa kiroldegian (10:00-13:00). Izen-ematea martxoaren 23a baino lehen egin behar da, [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) webgunean. Oñati eta Zumarragako areto bizikletako udal kirol zerbitzuetako erabiltzaileek 16€ ordaindu behar dute, eta gainerakoek 23€. Plazak mugatuak dira. Informazio gehiago Zubikoa kiroldegian (943716375 / [zubikoa@onati.eus](mailto:zubikoa@onati.eus))

## OÑATIKO 30. DUATLOIA jokatuko da martxoaren 18an

**Sprint erako Euskadiko txapelketa izango da**


Urtero izaten da berezia eta ikusgarria Oñatiko Duatloia, baina aurtengoa are bereziagoa izango da, 30. edizioa izango baita, eta Sprint erako Euskadiko txapelak egongo baitira jokoan.

### BIZIKLETAN URTIAGAINERA

Lehiakideek 10 eta 5km.-ko korrika saioak egin beharko dituzte herriko kaleetan, eta, tartean, 38 km.-ko bizikleta saioa. Bizikletako partzalean dago aurtengo berritasun nagusia ibilbideari dagokionez, lehen itzulian Urtiagainera igo beharko baitute lehiakideek.

Gure ordezkarietako dagokionez, Miren Josune Bikuña gertutik jarraitu beharko dugu, Euskadiko taldekako txapelketa irabazi ostean, Mungiako duatloian bigarren sailkatzetik baitator.

**DUATLOI EGOKITUA** Egokitutako duatloia ere jokatuko da aurten. Kasu honetan, partaideek 3,8 eta 2,5km.-ko korrikako saioak egin beharko dituzte, eta 16,3km.-ko bizikletakoa. Goizean (11:00) **Duatloia Txikia** jokatuko da.



## Denboraldi berrirako prest

Aurten errepideetan izango dituen txirindularien aurkezpena egin du Aloña Mendik. 44 neska mutiko guztira, Benjamin, Alebin, Infantil, Kadete eta Junior mailatan banatuta, Bizipoz Kafetegia eta Ulma Taldearen babesarekin. Oñatin egingo den aurreneko karrera **martxoaren 11n** izango da, eskolarte mailakoa. Gogoratu, gainera, Afizionatu mailan 4 ordezkari izango ditugula: Unai Cueva, Danel Casais, Aimar Erostarbe eta Aimar Madina.



Martxoaren 11n eskolarte mailako lasterketak jokatuko dira Oñatin

"Etorkizuna iragartzeko modurik onena  
berau sortzea da"

*Peter Drucker*

# Batxilergoa, ELKAR HEZIn!

Matrikula epea: Martxoak 27 - Apirilak 21

Bisita pertsonalizatuak adosteko:

Informazioa: ☎ 943 71 82 72 📞 688 621 135  
[idaszkari@elkarhezi.eus](mailto:idaszkari@elkarhezi.eus) / [www.elkarhezi.eus](http://www.elkarhezi.eus)

# Komikia Tertulixan

## Irakurle talde berria jarriko da martxan udal liburutegian

Lehenago ere, tarteka irakurri izan dituzte komikiak udal liburutegiko Tertulixan-Irakurle Taldeetan, baina orain urrats bat gehiago ematea erabaki dute eta Komikia-Tertulixan talde berria sortzea erabaki dute. "Gero eta indar handiagoa hartzen ari den generoa da", azaldu digu Arantzazu Ibarrondok, liburutegiko zuzendariak; "gero eta komiki gehiago argitaratzen dira, gero eta leku gehiago hartzen dute liburu denda eta liburutegietako apalategietan, eta, ondorioz, gero eta komikizale gehiago dago. Nik uste dut komikia eta nobela grafikoa, oro har, oso ondo egokitzen direla gaurko gizartearen ohituretara, oso bisualak direlako eta, normalean, errazago irakurtzen direlako, nahiz eta batzuk oso sakonak eta mami-tsuaq diren".

Aurten proba moduko bat egin nahi izan dute eta, horregatik, hiru saio bakarrik egingo ditu Komiki taldeak —martxoan, apirilean eta maiatzean—, baina deialdiak izan duen arrakasta ikusirik, hurrengo ikasturtean ere jarraipena izango du, ziurrenera, saio gehiagorekin. Oraingo, gaztelerazkoa da komiki talde berria, baina euskarazkoa sortzea ere ez dute baztertzen. "Gero eta komiki gehiago argitaratzen dira euskaraz ere, baina aukera ez da hain zabala, orain-



**Kike Infame  
ilustratzaile  
bilbotarrak  
dinamizatuko  
du taldea**

**Dagoeneko  
25 lagun  
daude taldean,  
baina izena  
eman daiteke  
oraindik**

**Apirileko  
saioan Mikel  
Begoña  
eta Iñaket  
komikigileek  
parte hartuko  
dute**

goz. Dena den, aztertuko dugu", azaldu digu Ibarrondok.

### HIRU SAIO

Kike Infame izenez ezaguna den kazetari, ilustratzaile, gidoigile eta komikigile bilbotarrak dinamizatuko du Tertulixan talde berria. *Morirse en Bilbao* edo *La Resistencia* bezalako komiki serieen egilea da, beste hainbaten artean.

Komiki taldeak aurten egingo dituen hiru saioetarako irakurgaien aurrerapena ere egin digu Infamek: lehenengoan (martxoak 21) Josune Urrutiaren *Hoy no es el día* (Astiberri, 2022) komikia aztertuko dute. Minbizia pairatu duten emakume artista ezberdinen esperientzietan oinarritutako lana da.

Bigarren saioan (apirilak 19), *Hélice* nobela grafikoa irakurri eta aztertuko dute. Lehen Mundu Gerra garaiko Bilboko gizartearen erretratu da, eta liburuaren egileak ere (Mikel Begoña gidoigilea eta Iñaket marrazkilaria) bertan izango dira. Maiatzeko azken saioan Jeff Smith-en *Bone* komiki serie arrakastatsua aztertuko dute.

Irakurgai nagusiez gain, hauekin lotutako irakurgai osagarri batzuk ere proposatuko ditu hileroko Infamek. Tertulixan-Komikia talde berrian parte hartu nahi izanez gero, eman izena udal liburutegian. ■



**Hoy no es el día**  
(Josune Urrutia)



**Hélice** (Mikel Begoña eta Iñaket)



**Bone** (Jeff Smith)

Tertulixan-Komikia taldean hiru saioetan irakurri eta aztertuko dituzten



**ARRIZABALAGA**  
Aroztegia

Berezo Ind. 10  
Tel. 943 78 14 64



**PAKITA**  
Altzariak

Sta. Marina, 6  
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

## IRAZOLA

**Okindegia**

Ostiral, asteburu  
eta jai egunetan  
baserrniko agia,  
egurrezko labea egina

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

# Udal liburutegiko Tertulixan taldeek 10 URTE

Udal liburutegiko Tertulixan-Irakurle Taldeek hamar urte bete dituzte, bai euskarazkoak eta baita gaztelarazkoak ere, eta balorazioa oso positiboa da. "Orain dela hamar urte hasi zirenetako askok, %70 inguruk, jarraitu egiten dute, eta hori berori nahikoa adierazgarria dela esango nuke, gustura dabilzatan seinale", adierazi digu Arantzazu Ibarrondok, liburutegiko zuzendariak.

"Dinamizatzailak aldatuz joan gara", jarraitzen du Ibarrondok, "eta hori ere aberasgarria dela uste dut, bakoitzak bere estiloa daukalako; idazleak izan ditugu, unibertsitateko irakasleak, itzultzaileak, gidogileak, kazetariak... Ikuspuntu ezberdina eskaintzen dute eta proposatzen dituzten irakurgaiak ere anitzagoak izaten dira, bai generoari eta baita edukiei dagokienean ere. Hamar urte hauetan zehar ondo finkatu eta errotu den jarduera bat da eta irakurle taldeetan parte hartzen dutenak oso gustura daudela uste dut. Azken batean, irakurritako liburu baten inguruko gogoetak partekatu eta elkarrengandik ikastea oso aberasgarria dela uste dut".

Horrenbestez, une honetan hiru irakurle talde daude udal liburutegian. Euskarazkoan 15 lagunek dihardute, gaztelarazkoan 26k, eta sortu berri den komikiaren inguruko taldean dagoeneko 25 lagunek eman dute izena.

## IRAKURKETA ERRAZA

Irakurketa Errazeko taldea sortzea da udal liburutegiko lantaldeak duen beste erronketako bat. Sortzea edo berreskuratzea esan beharko genuke, agian, lehenago ere egon baitzen halako talde bat. "Bai, bi edo hiru urtetan eduki genuen irakurketa errazeko talde bat, baina eten egin behar izan genuen, ez geneukalako dinamizatzailerik. Arrazoi bategatik edo bestegatik, irakurtzeko zailtasunak dituen jendeari zuzenduta egoten dira Irakurketa Errazeko taldeak, eta hizkuntza aldetik egokituta (esaldi motzagoak, hitzen esanahia ulertzeko hiztegitxoak...) dauden liburuak irakurtzen dira. Nik uste dut liburutegi guztietan egon beharko lirakeela halako taldeak, horixe baita liburutegien funtzio soziala betetzea, eta, beraz, ahalegina egin nahi dugu Irakurketa Errazeko taldea berreskuratzeko", adierazi digu Ibarrondok.

## HAUR ETA GAZTEEN TALDEAK

Gazte-nerabeen irakurle talde bat sortzeko ahalegina ere egin zuen udal liburutegiak duela urte batzuk, baina oso oso zaila omen da, Ibarrondok azaldu digunez. "Eskola orduetatik kanpo aktibitate pilo bat dituzte gaurko gazteek, eta oso zaila da egun bat eta ordutegi bat adostea. Oraingoz ez dugu formula egokirik aurkitu halako talde bat antolatzeko".

Haurrei dagokionez, pandemiaren ondorioz etenda geratu zen Irakurle Kluba berreskuratzeko asmoa ere badu udal liburutegiko lantaldeak. Bestalde, duela hamar urte abian jarri zuten Ostegun Kontalariak ekimenak (hileroko azken ostegunetan egon ohi den ipuin kontaketa saioa) harrera oso ona du gaztetxoeren artean. ■



## 'Euskal komikia 1975 urtetik' **ERAKUSKETA**

► MARTXOAK 20-31 KULTUR ETXEAN

Bizkaiako Foru Liburutegiak antolatutako erakusketa egongo da ikusgai kultur etxeko erakusketa aretoan, martxoaren 20tik 31ra. Trantsizio garaitik hona euskal komikiak bizi izan duen bilakaera eta etapa ezberdinak erakusten dira erakusketa. Inaugurazio egunean (martxoak 20) helduentzako bisita gidatua egingo da (18:30) Kike Infame eta Mikel Begoñaren eskutik.

## Komiki tailerra gazteentzat

► MARTXOAK 21 ETA 28 / KULTUR ETXEAN

9 urte arteko gaztetxoei zuzendutako komiki tailerra, Usue Egia ilustratzaile durangarraren eskutik. Ordu eta erdiko (17:00-18:30) bi saio izango dira. Irudien bitartez kontatzeko gaitasuna landuko dute. Partaide bakoitzak berari gertatutako istorio bat binetetara eramaten ikasiko du, komikiaren baliabide bisualak erabiliz, oporrak igarotzera etxera etorrriko den estralurtarrak ulertu ahal izan dezan. Izen-ematea, martxoaren 17ra, udal liburutegian.



## Helduentzako ipuin kontaketa

► MARTXOAK 7 / KULTUR ETXEAN

Emakumeen nazioarteko egunaren harira, helduentzako ipuin kontaketa saio berezia antolatu du udal liburutegiak. Elssie Xalbador kontalari, clown eta aktore bizkaitarrak '**Ipuinez nazkatuta**' izenburua duen saioa eskainiko du kultur etxeko zine aretoan (19:00). Estereotipoz jositako betiko kontakizunak alde batera utzi eta bizitzarekin bat datozen ipuin errealistez osatutako saioa eskainiko du, betiko etiketa eta mugak hautsiz.



## Haurrentzako ipuin kontaketa

► MARTXOAK 30 / HAUR LIBURUTEGIAN

Zirkugintza Taldeko Elssie Xalbadorrek '**Elssie and Dekker**' ipuin kontaketa saioa eskainiko du 6 urtetik gorako haurrentzat. Genero rola zalantzan jartzen dituen ikuskizuna da. Generoaren araberako bereizketak alde batera utzi, eta izan nahi zutena izaten ausartu ziren pertsonen istorioak kontatuko ditu Elssie Xalbadorrek. Izen-ematea, martxoaren 20tik aurrera.



# 'SEHASKA KANTA GORRIARI'

Alaine Agirreren 'Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama' nobelan oinarritutako antzezlanaren taularatuko du Arta Kolektiboak martxoaren 25ean

**Emakume sortzaileen lana ikusgarri egiteko, Udalak emandako laguntzari esker sortutako lana da**

Irazan Antzerki Gunearen baitan sortu den ARTA kolektiboak — Irene Balzategi, Amaia Castañeda eta Gentzane Martínez de Cestafe —, **Sehaska kanta gorriari** izenburua duen antzezlanaren taularatuko du estreinakoz martxoaren 25ean.

Emakume sortzaileen lanari ikusgarritasuna emateko asmoz Udalaleko kultura eta berdintasun sailek iaz sortutako diru-sail berriari esker sortutako lana da. Lehen edizio honetarako, Balzategi eta Castañeda aktore oñatiarrek aurkeztutako proiektua hautatu zuen Udalak: Alaine Agirreren *Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama* nobelan oinarritutako antzezlanaren sortzea.


Sormen prozesua bera ere herriari irekia izatea nahi zuen Udalak, eta, hala, herriko irakurle talde batekin abiatu zuten prozesua, eta Alaine Agirre bera ere gonbidatu zuten solasaldi batera, nobelako gaietan sakondu, gogoetak partekatu eta obra bera herritarrekin batera eraikitzeko asmoz.

## OBRA MULTIDIZIPLINARRA

Nobela gordina da Agirrerenena; ama-alaba arteko harremana, osasun mentala, amatasunaren inguruko gatazka edota zaintza bezalako gaiak jorratzen ditu, gaixotasun psikologiko bat duen protagonistaren eskutik. Ildo horretan, idazlearen lengoia poetikoa, edertasuna, mina, sakontasuna eta begirada eskenatokira ekartzen saiatu dira Arta kolektiboko kideak, sinopsian azaltzen dutenez: "Ama-alaba harremanean, ahizpen artekoan, eromenean, norbere buruaren barnean gertatzen den bidaia batean murgilduko gara antzezlan honetan".

Agirreren nobelan inspiratuta dago antzezlanaren baina Arta kolektibokoek beraien obra propioa egin nahi izan dute. "Alaineren liburuak gudan eragindakoa eta gai horien inguruan guk geuk esan nahi genuena islatu nahi izan dugu".

Ordubete pasatxo irauten du obrak, eta ez da antzezlan klasiko bat izango, lengoia eta arte adierazpen ezberdinak



Irene Balzategi,  
Amaia Castañeda  
eta Gentzane  
Martínez de Cestafe,  
ARTA Kolektiboko  
kideak  
(Argk.: Itziar Bastarrika)

(antzerkia, ikus-entzunezkoak, dantza, musika...) uztartzen dituen *performance* erako ikuskizuna baita. "Proposamen desberdina eta, hein batean, berritzailea egin nahi izan dugu", adierazi dute.

## DENAK EMAKUMEAK

Arta kolektiboko hiru kideez gain, obra honetan parte hartzen duen lan talde osoa emakumez osatuta dago: Itziar Bastarrika (argazkia eta bideoa), Jaione Azkona (argi diseinua eta teknika) eta

Muare taldea (soinua). "Udalaren eskaria zen, baina baita gure nahia ere, emakumeei ikusgarritasuna emateko eremu artistiko ezberdinetan", adierazi dute Arta-koek, "eta jaso dugun erantzuna izugarria izan da".

Antzezlanaren sortzeaz gain, produkzio lan guztia ere bere gain hartu du Arta kolektiboak, eta hori ere erronka handia izan dela diote. Martxoaren 25ean izango da estreinaldia, Santa Ana antzokian (19:00). Sarrerak (10€) udalaren webgunean eskuratu ahal izango dira. ■

# Broadway-ko musikalak musika bandaren eskutik

**Camden Town Dance Studio** taldeko dantzariak parte hartuko dute Oñatiko musika bandaren kontzertuan. **Martxoaren 12an**, Zubikoa pilotalekuan, 13:00

Oñatiko musika bandaren martxoko kontzertua berezia izango da, oso. 'Musikaldia' izenburupean Broadway-ko sei musikak ezagunetako doinuak joko ditu: **MAMMA MIA, EL REY LEÓN, THE GREATEST SHOWMAN, GREASE, LALA LAND** eta **IN THE SHADOW OF NAPOLEON**. Gainera, musika bandako kideak ez dira bakarrik egongo eskenatokian, Bergarako **Camden Town Dance Studio** taldeko dantzariak ere parte hartuko baitute, musika koreografiatuz. Musika ederraz gain, dantzak, oihal akrobaziak... ikusi ahal izango ditugu ordu bete iraungo duen kontzertu eder honetan. Aukera bikaina Broadway estiloko ikuskizun oñatiar honetaz gozatzeko.

Martxoaren 12an izango da emanaldia, Zubikoa pilotalekuan (13:00). Sarrerak (dohainik) Txokolateixan eskuratu ahalko dira.



## Kantu Eskolak KANTARI

**MARTXOAREN 17**  
**SANTA ANA, 19:00**

Ganbara Faktoriako harrobiko taldeek (Ganbara Txiki, Txikitxo, Tailerrak eta Ikastetxeak Kantari) hiruhileko kontzertua eskainiko dute. Pandemiak eragindako bi urteko etenaldiaren ostean Ikastetxeak Kantari ekimeneko taldeak berriz ere kantuan ikusteko aukera egongo da eta, gainera, **TARTALO** ipuin musikatuaren estreinatuko dute, Eva Ugalde musikagileak idatzia. Sarrerak (5€) Txokolateixan edo [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) webgunean eskuratu ahal izango dira. Guztira 100dik gora neska-mutikok parte hartuko dute.

# Emakumeen Hots-a aldarrikapen kontzertua

**Hots Abesbatzak** emakumeek konposatutako piezak abestuko ditu. **Martxoaren 12an**, Agustinoen elizan, 19:00

Martxoaren 8an ospatzen den Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, Oñatiko Ganbara Faktoriak gogoratu nahi du musikaren munduan oso txikia dela oraindik ere emakumeen presentzia (konposatzaileak, musikariak, zuzendariak...). Hori dela eta, Hots Abesbatzak (Ganbara Faktoriako emakumeen abesbatzak) kontzertu errebindikatuak eskainiko du programa berezi batekin, emakume konposatzaileek (E. Ugalde, J. Guerrero...) idatzitako piezak abestuko baitituzte, Amaia Zipitria piano jolearekin batera. Martxoaren 12an izango da kontzertua, Agustinoen elizan (19:00). Sarrera, 5€, Txokolateixan eta [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) atarian..



# Orkestra barrutik ezagutzen

**Aequus Ensemble** orkestra barrutik ezagutzeko aukera izango dute haur eta gaztetxoek. **Martxoaren 18an**, Santa Ana antzokian, 12:30

Ganbara Faktoriaren baitan sortutako **Aequus Ensemble** orkestra barrutik ezagutzeko aukera izango dute herriko haur eta gazteek. Orkestrako instrumentuak ezagutu, jotzeko aukerak entzun eta identifikatzeko, musika desberdinaz gozatzeko aukera emango duen kontzertua izango da. Familia osoak daude gonbidatuta. Gainera, bertaratzen diren haurrek opari bat jasoko dute kontzertuan parte hartzeagatik. Martxoaren 18an izango da, Santa Ana antzokian (12:30). Sarrerak (3€) Txokolateixan eta [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) webgunean.



# AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta [www.onati.eus](http://www.onati.eus) webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan



## INGURUMEN JARDUNALDIAK

MARTXOAK 4 / goizean zehar

### ZUHAITZ FERIA

Mintegi ezberdinetako zuhaitz, landare eta haziak erosteko aukera. [Foruen plazan](#)

MARTXOAK 4 / 10:00

### 'SENDABELARRAK'

'Sendabelarrek dakitena' eta 'Sendabelar baratzea' liburuak aurkeztuko ditu Garbiñe Larrea egileak. [Natur eskolan.](#)

MARTXOAK 5 / 10:00

### ZUHAITZ EGUNA

Zuhaitz landaketa egingo da herriko gune batean. [Hitzordua, Foruen plazan](#)

MARTXOAK 12 / 12:00

### ZUHAITZ EGUNA

Aloñako Lagunak taldeak antolatuta. [Hitzordua, Unaimendin](#)

## AZOKAK

MARTXOAK 5 / 10:00-14:00

### EMAKUME ARTISAUEN AZOKA

Andraitzek antolatuta, [Foruen plazan](#)

## KONTZERTUAK

MARTXOAK 3 / 22:00

### PINPILINPUSSIES + RO

Post-punk, pop, rock alternatiboa eta post-rock doinuen bueltan dabilen taldeak Sarrera: 8€/3€. [Antixena gaztetxean](#)

MARTXOAK 5 / 12:30

### DON INORREZ

Imanol Ubedak gidatzen duen pop-rock taldea. Sarrera: 5€/3€. [Antixena gaztetxean](#)

MARTXOAK 11 / 22:00

### ASGARTH + BASATI

Añorga eta Tolosako hauey metal taldeen kontzertua. Sarrera, 10€. [Gaztelekuan](#)

MARTXOAK 17 / 21:30

### MOCKERS + OCCHI DI FARFALLA+TRINI FOX

Rock, psikodelia eta punk-rock doinuak. Sarrera, 5€/3€. [Antixena gaztetxean](#)

MARTXOAK 26 / 12:30

### THE LIZARDS

Bartzelonako punk-hard rock taldea. Sarrera, 6€. [Gaztelekuan](#)

## LABURBIRA

### euskarazko film laburren zirkuitoa Oñatira iritsiko da martxoaren 22an

Euskarazko sortzaileen lana ezagutarazteko asmoz Euskaltzaleen Topaguneak urtero antolatzen duen film laburren zirkuito ibiltaria da Laburbira. Aurten zazpi laburrek osatzen dute kartela, eta horietako bat Leire Egaña oñatiarrak zuzendutako **Erlojupekoa** filma da (<https://irudienea.topagunea.eus/egitasmoaak/laburbira>)



APIRILAK 1 / 19:00

### HARRIA+RAMADA INN

Bergara eta Oñatiko rock taldeak. Sarrera, 8€. [Gaztelekuan](#)

APIRILAK 2 / 19:00

### WILLIS DRUMOND

Lapurdiko rock taldearen birako azken kontzertua (5€/3€). [Antixena gaztetxean](#)

## HITZALDIAK

MARTXOAK 4 / 10:30

### 'LOS LIMITES DEL LENGUAJE. LOS LIMITES DE MI MUNDO'

Hizlaria: Javier, 'Fraude legal' eta 'Soberanía holística' kanalaren sortzailea. Creciendo con Arte eta Macrosano taldeek antolatuta. Leku-erreserba 658 719 089 (whatsapp). [Kultur etxean.](#)

MARTXOAK 8 / 10:00

### 'BAKARDADEAREN AURKAKO GIPUZKOAKO ESTRATEGIA: HARIAK'

Hizlariak: Ainhoa Becerra Sotelo (Adinberri). Oñatiko Esperientzien Gelak antolatuta. [Santa Ana antzokian.](#)

MARTXOAK 16 / 18:00

### 'ESTATU ARRAZAKERIAREN GEOGRAFIAK. MUGAK, PATRIARKATUA ETA KAPITALA'

Hizlariak: Ainhoa Nadia Douhaibi eta Florencia Brizuela. [Kultur etxean.](#)

MARTXOAK 23 / 18:00

### 'DOLU PERINATALA IKUSGAI EGITEN'

Hizlaria: Esku Hutsik elkarteak. [Euskaldun berria gelan.](#)

MARTXOAK 29 / 10:00

### 'GAMBOA, EL VALLE INUNDADO'

Hizlaria: Fernando Sánchez Aranaz. Oñatiko Esperientzien Gelak antolatuta. [Santa Ana antzokian.](#)

## IPUIN KONTAKETAK

MARTXOAK 7 / 19:00

### IPUINEZ NAZKATUTA

Gazte eta helduentzako saioa, Elsie Xalbadorren eskutik. [Kultur etxean](#)

MARTXOAK 30 / 18:00

### ELSSIE & DEKKER

Haurrentzako ipuinak, Elsie Xalbadorren eskutik. [Haur liburutegian](#)

## ANTZERKIA

MARTXOAK 10 / 20:30

### 'ISILTASUNAREN GATIBU'

Zarta taldearen eskutik. [Santa Anan](#)

MARTXOAK 25 / 19:00

### 'BI ALDIZ ERDITU ZINEN NITAZ, AMA'

Arta kolektiboaren eskutik. [Santa Anan](#)

## IKASTAROAK

MARTXOAN

### KZGUNE-KO IKASTAROAK

'WhatsApp. Bat-bateko mezularitza zure smartphonean'; 'BakQ ziurtagiria'; 'Android-en mantentze lanak. Luzatu zure gailuaren bizitza'; Smartphoneak eta tabletak. Zure Androig gailua erabiltzen ikasi'; 'Oinarriko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoa bidaltzen ikasi'; 'Zure egunerokotasuna hobetuko duten aplikazioak'; 'Ofimatika tresnak-LibreOffice'. Informazioa eta izen-ematea [tutor.onati@kzgunea.net](mailto:tutor.onati@kzgunea.net) / 943023672. [Kultur etxeko KZgunean](#)

## TXAPELKETAK

MARTXOAK 10 / 21:00

### GAZTETXEKO I. DARDO TXAPELKETA

Izen-ematea 20:30etan. [Gaztetxean](#)



## IKASTAROA

### ZIZELKATZE IKASTAROA



Eltzian egoitza duen Oñatiko Zizelkatzaileak taldeak antolatuta. **Martxoaren 8tik ekainaren 14ra.** As-  
tezkenetan 14:45-16:45 eta 17:00-19:00. Irakaslea: Javier Arrieta. Prezioa: Bazkideak 50€, Langabetuak 10€, Langileak 60€. Informazioa eta izen-ematea: [zizelkatu@gmail.com](mailto:zizelkatu@gmail.com)

## JARDUNALDIAK

### ARTE JARDUNALDIAK Gaztetxean



**Apirilaren 12tik 26ra** herriko artearen topagunea izango da Antixena. Buztina, serigrafia, pintura, mural margoketa... tailerrak, mahai-inguruak, hitzaldiak eta erakusketak egongo dira. Gainera, apirilaren 22an **ARTixena** eguna ospatuko dute. Izen-ematea mugatu da, beraz, adi sare sozialei martxoaren 13tik 31ra.

## AURKEZPENA

### herriBiltza

Herritar biltzar burujabeen elkargoaren aurkezpen orokorra eta bere baitako lan ardatz batzuen aurkezpena egingo da apirilaren 1ean Antixena gaztetxean (11:00-19:00).



### Hileko gomendioa

Catherine Meurisseren azken lan honetan naturak paper garrantzitsua du berriz ere. Oso estetika fina eta koloretsua erabiliz, Japoniako landa-inguruneke historia eta ohiturak ezagutzeko aukera oparitzen digu.

### Komikia



## FARMAZIA

### ANDUAGA

**San Lorentzo 3** ☎ **943 78 21 16**  
Martxoak 1, 2, 10, 11, 12, 20, 21, 29 eta 30.

### IGARTUA

**Kale Zaharra 1** ☎ **943 78 01 22**  
Martxoak 3, 4, 5, 13, 14, 22, 23 eta 31.  
Apirilak 1 eta 2.

### GARATE

**Kale Barria 42** ☎ **943 78 05 58**  
Martxoak 6, 7, 15, 16, 24, 25 eta 26.  
Apirilak 3 eta 4.

### ULDAIN

**Kale Barria 6** ☎ **943 78 11 28**  
Martxoak 8, 9, 17, 18, 19, 27 eta 28.  
Apirilak 5, 6, 7, 8, 9 eta 10.

## ZINEA



### Otsailak 2 - 6

#### ZINE KLUBA:

**Holy Spider**  
**NAGUSIAK:**  
Irati  
(Zapatuan, 19:30 ere emanaldia egongo da)  
**GAZTETXOAK:**  
Momiak



### Otsailak 16 - 20

#### ZINE KLUBA:

**Broker**  
**NAGUSIAK:**  
Los Fabelman  
**GAZTETXOAK:**  
King, mi pequeño rey



## ORDUTEGIA

**Zine-kluba:** Osteguna (20:00)  
**Nagusiak:** Ostirala (22:00), larunbata (22:00) eta igandea (19:30 eta 22:00). Astelehena (19:30 / ikuslearen eguna)  
**Gaztetxoak:** Larunbat eta Igandea (17:00)

### Otsailak 9 - 13

#### ZINE KLUBA:

**La Maternal**  
**NAGUSIAK:**  
Ellas hablan  
**GAZTETXOAK:**  
Mi querido monstruo



### Otsailak 23 - 27

#### ZINE KLUBA:

**Decision to leave**  
**NAGUSIAK:**  
Almas en pena de Inisherin  
**GAZTETXOAK:**  
Violeta, el hada traviesa



## MERKATU TXIKIA

**GARAJE** bat alokatu edo erosi nahi nuke Portu kafetegitik hurbil. Deitu: 610 466 020

**ETXEKO LANAK** Oñatiko emakumea etxeke lanak egiteko gertu: 645703721

**GARAJE** itxia alokatzen da. 16m<sup>2</sup>, argia, San Lorentzo auzoan, goiko aldean. Deitu: 652 705 766

**GARAJEA** Garaje bat alokatzen da Ugarkaldeko 13-17an. 645 719 884

**LOKALA** Bulegoa (17m<sup>2</sup>) alokatzen Euskadi Etorbideko 7an. Deitu: 645 719 884

## ODOL ATERALDIA

**MARTXOAK 17 / 16:30-20:30**  
Enpresagintza fakultatean. Hitzordua hartzeko, deitu: **943 00 78 84**



Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | [www.mekalki.es](http://www.mekalki.es)



(\*) Itten: arrastua, pistia

## &gt;&gt; EUSKERAZ EGOGI

## Deklinabidia (I)

**-IA** amaieria dakoin berba guztiak eztaue 'X' epentetikua hartzen berbia mugatutakuan, adibidez: *arotzerixak* bai, eta *farmaziak* ez.

*Edozein arotzerixa (m.gg); Kale Zaharreko arotzerixia (m.s); Oñatiko arotzerixak (m.p)*

*Edozein farmazia (m.gg); Kale Zaharreko farmazia (m.s); Oñatiko farmaziak (m.p)*

Salbuespenak badagoz be, normalian **-iarekin** akabotako berbia erderaz diptongua<sup>1</sup> bada, Oñatin be hala egingo dogu, hau da, **-ia** esango dogu. Adb.: *grazia*, *industria*, *inportantzia*, *kolonia*, *potentzia*, *sustantzia* ...

Eta, berriz, erderaz hiatua<sup>2</sup> bada, **-ia> -ixa + a > -ixia** esango dogu Adb.: *armerixia*, *ingenirixia*, *karnazerixia*, *loterixia* ...

Horren barri ez izatiak horrelako akatsak sortu eragitten ditu: \*farmazixian, \*erlojerixian...

	Mugagabian	Mugatu singularrian	Mugatu pluralian
<b>Zer</b>	Arotzerixa Farmazia	ArotzerixIA FarmaziA	ArotzerixAK FarmaziAK
<b>Nun</b>	ArotzerixaTAN FarmaziaTAN	ArotzerixaN FarmaziaN	ArotzerixETAN FarmaziETAN

Nun erosi dozu eskopetia? Armerixa**N**

Nun egongo ete da arotza? Arotzerixa**N**

Nun erosiko dot perfumia? Drogerixa**N**

Nun konponduko dotsue erlojua? Erlojerixa**N**

Nun egoten dira barautsak? Ferreterixa**N**

Nun erosi bihar dozu frutia? Fruterixa**N**

Nun ikusi dozu ulixa? Fotografixa**N**

Nun etarako doskue txokolatia bolauarekin? Kafeterixa**N**

Nun saltzen dittue holako txarradak? Karnazerixa**N**

Nun erosi dozu kutxillua? Kinkillerixa**N** (kinkilleruenian)

Nun kurtitten daue narrua? Kurtiderixa**N**

Nun bazkaldu dozue? Hospederixa**N**

Nun garbittu dozu erropia? Labanderixa**N**

Nun enkargau dozu karapaixua? Pananderixa**N**

Nun saltzen dittue pastelak? Pastelerixa**N**

Nun da ama? Pelukerixa**N**

Nun da aitta? Peskaderixa**N**

Nun saldu dotsue hirugixarra? Txarkuterixa**N**

Nun eukitten daue kakaua? Txokolaterixa**N**

Nun erosiko dittuzu zapatak? Zapaterixa**N**

**Baiña:**

Horrek badako ala eztako **graziaRIK**? Bai, badako nehikua **grazia!**

Horrek badako edo eztako **inportantziaRIK**? Zenbateko **inportantzia** emuten xakon!

<sup>1</sup> Silaba batian agoskaitten diran bi bokal

<sup>2</sup> Alkarren onduan dagozen bi bokal silaba desbardiñetan ahoskaittia



#NiTokikozale  
#NiTokikozale  
#NiTokikozale  
#NiTokikozale  
#NiTokikozale



Kimu-Utxin



Lino Urzelai



Jesus Odriozola



1 "Apopilo-etxe batean lo egin nuen Madrilen hartu genuen hotela itxita zegoelako"



2 "Valentino Rosi handiaren alboan afaltzeko aukera izan nuen behin Jerezen"



3 "Bizilagunaren katua gauez etxean sartu zitzaigun. Susto galanta hartu genuen!"

# Jolastu, lotu eta dendariak ezagutu

Bete itzazu alboko hutsuneak. Erantzun zuzenak, hilean zehar publikatuko ditugu sare sozialetan.

1  2  3



# LANA

*Innovation from nature*



**BEAM HABA-20**



**THREE-LAYERED  
SHUTTERING PANEL  
IRU-PU & STD**



**PELLET**



LANA S. Coop.  
Czech LANA s.r.o  
[www.lana.eu](http://www.lana.eu)